



LANDA EREMUKO UDALTALDE 21 PILOTUA



**Tokiko Agenda 21. Alkiza
Behin-betiko Diagnostikoa**

Izenburua / Título:	Tokiko Agenda 21. Alkiza. Behin-betiko Diagnostikoa.			
Egileak / Autores:	Oinarrizko Lantaldea: Garbiñe Olaberria (Kontrataturiko Teknikaria), Maider Etxaide (Haizea, S.L.), Miren Askasibar (Paisaia, S.L.)			
Hartzaileak / Destinatarios:	Alkizako Udala			
Edizio data / Fecha de edición:	2005.eko urriak 7			
Itzulpena / Traducción				
Orriak / Páginas:	82			
Bertsioa / Versión:				
Erreferentzia / Referencia:				
Proiektuaren hasierako data / Fecha de comienzo del proyecto:	2005.eko urtarrilak 10			
Iraupena / Duración:	12 hilabete			
Bertsioen historia / Historial de las versiones:	Bertsioa / Versión	Data / Fecha	Ekintza / Acción	Oharrak / Notas

AURKIBIDEA

Sarrera Hitzak	6
1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA	
1.1. Biztanleria	
1.1.1. Biztanle dentsitatea (biztanleak/Km ²)	8
1.1.2. Biztanleriaren eboluzioa	8
1.1.3. Biztanleriaren egitura (adina eta sexuaren arabera)	11
1.1.4. Familien egitura eta tamaina	13
1.1.5. Migrazio mugimenduak	14
1.2. Jarduera ekonomikoa eta enplegua	
1.2.1. Enplegua	16
1.2.2. Egitura ekonomikoa	19
1.3. Oinarrizko zerbitzuak eta azpiegiturak. Bizi kalitatea	
1.3.1. Etxebizitza	21
1.3.2. Zerbitzu orokorrak	26
1.3.3. Hezkuntza	28
1.3.4. Osasuna	31
1.3.5. Gizarte zerbitzuak	32
1.3.6. Kultura eta kultur ondarea	34
1.3.7. Kirola	37
1.3.8. Euskara	38
1.3.9. Erlijioa	39
1.3.10. Aisia	39
1.3.11. Herri giroa	41
2. INGURUNE NATURALA	
2.1. Naturgune eta elementu natural babestuak	
2.1.1. Babestutako naturgune eta elementuen zerrenda, kontserbaziorako arrazoiak	43
2.1.2. Babes mota eta beronen garapen maila	44
2.2. Ondare naturala eta paisaia kontserbatzeko intereseko eremuak	
2.2.1. Interesgarriak izan arren babestu gabe dauden eremuen zerrenda eta deskribapen laburra	44
2.3. Suteak	44
3. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA	
3.1. Errepide sarea	
3.1.1. Udalerriko egungo errepide sarea	46
3.1.2. Errepide berriak egin edo egungoak hobetzeko proiektu/aurreikuspenak	47
3.1.3. Puntu beltzak, gune arriskutsuak	47
3.2. Mugikortasunaren ezaugarriak	
3.2.1. Ibilgailuak	48
3.2.2. Aparkalekuak	49
3.2.3. Garraio publikoa	50
3.3. Irisgarritasuna	
3.3.1. Ibilgailuen irisgarritasuna	52
3.3.2. Pertsonen irisgarritasuna	52
4. INGURUMEN BEKTOREAK	
4.1. Ura	

4.1.1.	Ur baliabideak	54
4.1.2.	Ur hornidura	54
4.1.3.	Ur kontsumoa	54
4.1.4.	Saneamendua	55
4.1.5.	Hornidura, saneamendua, eta uraren erabileraren udal kontrola (udalak zer kontrolatzen du)	56
4.2.	Energia	
4.2.1.	Energia hornidura iturriak: elektrizitatea, gasa, energia berriztagarriak	56
4.2.2.	Udalerriko energia kontsumoa	56
4.2.3.	Energia berriztagarriak	57
4.2.4.	Energia aurrezteko udal neurriak	58
4.3.	Hondakinak	
4.3.1.	Hondakinen kudeaketarako organo eta enpresa eskudunak	58
4.3.2.	Hondakinen sorkuntza	58
4.3.3.	Hondakinen kudeaketa	59
4.3.4.	Informazio eta komunikazio kanpainak	62
4.3.5.	Kontrolik gabeko isurpen puntuen identifikazioa	62
5. JARDUERA EKONOMIKOEN ERAGINA (BIZI KALITATEAN ETA INGURUMENEAN)		
5.1.	Baso ustiapenak	
5.1.1.	Baso zorua azalera eta urteroko aprobetxamendua (m ³)	64
5.1.2.	Eraginaren deskribapen kualitatiboa	67
5.1.3.	Baso suteak	67
5.1.4.	Zertifikatutako baso ustiapenen existentzia. Hektareak	68
5.1.5.	Basogintza jardueren eragin positiboak, herri inguru, paisai edota nortasunean	68
5.2.	Nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak	
5.2.1.	Ustiategiak	68
5.2.2.	Eraginaren deskribapen kualitatiboa	70
5.2.3.	Nekazaritza/abeltzaintza ekologikoko ustiategien existentzia	71
5.3.	Industria	
5.3.1.	Enpresa nagusiak	71
5.3.2.	Eraginaren deskribapen kualitatiboa (zaratak, usainak...)	72
5.3.3.	Zertifikatutako enpresak (kalitatea, ingurumena).	72
5.3.4.	Jarduera Lizentzien tramitazio egoera .	72
5.3.5.	Kexa eta salaketak	72
5.4.	Zerbitzuak	
5.4.1.	Hezkuntza jarduerak/Ostalaritza/Turismo egitura	72
5.4.2.	Jardueron eraginaren deskribapen kualitatiboa	73
5.5.	Lurzoru poluituak	
5.5.1.	Potentzialki poluitutako lurzoruen identifikazioa eta leheneratze jardueren existentzia	73
6. ARRISKUEN ANALISI ETA KUDEAKETA		
6.1.	Udalerrri mailako Larrialdi Planak	
6.1.1.	Larrialdi planen existentziaren egiaztapena eta deskribapen laburra	75
6.2.	Udal azpiegitura eta instalazioetarako Larrialdi Planak	
6.2.1.	Larrialdi planen existentziaren egiaztapena eta deskribapen laburra	75
7. KOMUNIKAZIO, SENTSIBILIZAZIOA, ETA PARTE-HARTZEA		
7.1.	Komunikabideak	
7.1.1.	Udalerrri mailakoak: Komunikabide zerrenda, tirada, audientziak	76
7.1.2.	Eskualde mailakoak: Komunikabide zerrenda, tirada, audientziak	76

7.2.	Komunikazioa Udaletxetik	
7.2.1.	Udalak erabiltzen dituen komunikazio-kanalak: Bandoak, komunikabideak....	76
7.2.2.	Udal batzordeak: Batzorde irekien existentzia, batzordeen arteko komunikazioa...	76
7.3.	Komunikazioa Udaletxearekin	76
7.4.	Heziketa jarduerak	
7.4.1.	Udaletxeak edo Udalez gaindiko entitateen batek sustatutako kanpainak eta ekimenak	77
7.5.	Udalerriko elkarte sarea	
7.5.1.	Udalerriko elkarte zerrenda, mota, partaide kopurua adieraziz.	77
7.5.2.	Herritarren partehartze eredua	78
7.5.3.	Parte hartzeko beste bide batzuk: auzolana, eliza, etab.	78
8.	UDAL INGURUMEN KUDEAKETA	
8.1.	Ingurumenaren aldeko ekimenak (udalak garatutakoak zein udalaz gaindiko entitateen partaidetzak garatutakoak)	
8.1.1.	Landa eremuko jarduerari lotutakoak	79
8.1.2.	Beste batzuk	79
8.2.	Udal ingurumen araudia, eta paisaiari buruzkoa	79
8.3.	Ingurumen edo/eta iraunkortasuneko irizpideak kontutan hartu direneko jarduerak	
8.3.1.	Erosketa berdea	79
8.3.2.	Kontratazioko plegu teknikoak	79
9.	UDALAREN ONDAREA	
9.1.	Eraikinak	80
9.2.	Hilerria	80
9.3.	Lursailak	80
	Informazio Iturriak	81

SARRERA

2005eko Urtarrilaren 10ean Tokiko Agenda 21 ezartzeko Landa Eremuko Udaltalde Pilotua abian jarri zen, ondoko lau udalerrri txikietan: Bidegoian, Albiztur, Alkiza eta Larraul. Ihobek, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Mendikoik sustatzen duten eta Tolomendik koordinatzen duen proiektu honen helburua da landa eremuko udalerrri horietan Tokiko Agenda 21 prozesua ezartzea eta herri horien ezaugarrietara egokitutako metodologia bat garatzea. Proiektuaren funtsa da **herri txukun, bizi eta juxtu bat garatzen lagunduko duen herri plan bat taxutzea, herritarren partehartzea integratuz.**

TA21en ezarpenak fase desberdinak ditu eta horietariko aurrenekoa herriaren Diagnostikoa egitea da. Prozesua martxan ipini zen une beretik Diagnostikoa osatzeko beharrezko informazioaren bilketa egin da, informazio iturri ofizial desberdinak erabiliz, tartean udal bera, eta baita ere zenbait herritarrekin eginiko elkarrizketan azaleratutako iritziak jasoz. Informazio horrekin, diagnostikoaren lehen zirriborroa osatu da, eta horren gainean udalak bere inguruko lehen hausnarketa egin ondoren Bigarren zirriborroa osatu da. Bigarren zirriborroko gai esanguratsuenak, Herri Batzarrean aurkeztu dira, eta bertako ekarpenak jaso ondoren aurkezten da Behin-betiko Diagnostikoa osatua.

Udaltalde Pilotuaren Behin-betiko Diagnostiko agiri honetan ondoko gai edo atalak lantzen dira nagusiki:

- Ingurune sozial eta ekonomikoa
- Ingurune naturala
- Mugikortasuna eta garraioa
- Ingurumen bektoreak
- Jarduera ekonomikoen eragina bizi kalitatean eta ingurumenean
- Arriskuen analisi eta kudeaketa
- Komunikazioa, sentsibilizazioa eta partehartzea
- Udal ingurumen kudeaketa

- Udalaren ondarea

Atal hauetako bakoitzean hainbat azpiatal aztertzen dira.


Txostena bi zutabez osaturiko taula baten gisara antolatuta dago. Taulako ezkerreko zutabearen herritarren diagnostikoa azaltzen da, hots, **herriko eragileei egindako elkarrizketen sintesia, eta Herri Batzarrean jasotako adostasun eta proposamenak**. Bi hauen arteko bereizketa egin ahal izateko, herriko eragileen elkarrizketetatik bilduriko erantzunak letra txikiz dauden bitartean, Herri Batzarrean bildurikoak letra larriz ageri dira. Herri Batzarrean bilduriko proposamenak bakarka egindakoak nahiz talde mailan egindakoak dira.

Eskuineko zutabearen, berriz, iturri desberdinetatik jasotako datu objektiboak ageri dira.

Atal bakoitzaren amaieran, bi zutabeak biltzen dituen interpretazio bat egiten da. Lehen atalaren azpiatal kopuru handia dela medio, zenbait azpiatal bilduz interpretazio bat baino gehiago egin dira.

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA**DATU OBJEKTIBOAK****1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA****1.1. Biztanleria**

- Azken urteetan kanpotik biztanle dezente etorri dira Alkizara, bai eraiki diren etxe berrietara, bai hutsik zeuden baserrietara ere.
- Etxe berriak egitea egoki ikusten dute batzuk, batik bat herritarrek bertan bizitzeko aukera izan dezaten. Hala ere, zenbaitek ez dute herria gehiegi haztea nahi.
- Gaur egun oso gutxi dira baserrietik bakarrik bizi direnak. Gazteek ez dute baserrian jarraitzeko gogorik eta kasu gehienetan adinduak dira baserria eramaten dutenak, lan egiten duten seme-alaben laguntzarekin. Baserrien gehiengo mistoa da, baserrietik bakarrik bizi diren familiak oso gutxi omen dira. Baserrietik bizi direnen kopurua beherantz doaz, baserrietan pixkanaka ganadua kenduz doazen neurrian.
- Lanari dagokionean, kanpoan lan egiten dute herritarrek, batik bat eskualdean bertan, eta, batzuen ustez, neskek zailtasun handiagoak dituzte lana aurkitzeko garaian eta ondorioz goi-mailako ikasketak burutzeko joera handiagoa dute.
- **HERRITARRENTZAT LEHENTASUNEKO ARAZOA DA HERRIAK ZENBAT HAZI BEHAR DUEN EZTABAIDATZEA.¹**
- **ETXE BERRIAK EGITERAKOAN, LEHENTASUNA HERRITARREK IZAN BEHAR DUTELA ADOSTU DA.**
- **BASERRIAN GEROZ ETA JENDE GUTXIAGOK LAN EGITEA, BATEZ ERE GAZTEEK BERTAN GERATU NAHI EZ DUTELAKO, ARAZO LARRIA MODUAN SAILKATU DA.**

1.1.1. Biztanle dentsitatea (biztanleak/Km²)


Biztanle dentsitatea nabarmen baxuagoa da Alkizan, Tolosaldea, Gipuzkoa eta EAeko batezbestekoarekin alderatuta. Landa eremuan aurkitzen diren herrien ezaugarrietako bat da biztanle dentsitate baxua izatea.

1.1.2. Biztanleriaren eboluzioa

¹ Letra larriz, Herri Batzarrean jasotakoak azaltzen dira ezker zutabe honetan. Letra txikiz, aldiz, elkarrizketetan jasotakoak.

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA**DATU OBJEKTIBOAK****1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA**

- HERRITIK KANPO LAN EGITEA ETA EMAKUMEZKOEN LANGABEZIA EZ DIRA ARAZO LARRI GISA IKUSTEN.



Aurreko bi hamarkadetan herriak biztanle kopuruan behar garrantzitsuak ezagutu dituen arren, ondorengo taulan ikusten den moduan, 2000. urtetik aurrera biztanleriaren gorakada nabaria da.

Auzo eta herriguneeen zerrenda eta biztanleriaren banaketa (2001-2005)						
	2000	2001	2002	2003	2004	2005
ALDAPA	16	15	17	18	19	23
ARANA	74	73	76	74	79	79
ALKIZA PLAZA	65	72	75	80	84	86
AZALDEGI	37	39	39	44	49	52
ERNIO	31	30	31	31	31	28
SAKAMIDRA	32	28	28	26	27	26
SANTIAGO ERMITA BIDE	-	-	-	-	-	7
GUZTIRA	255	257	266	273	289	301


Iturria: Udala (urtarrilaren 1eko datuak)

Arana bailara eta Plaza dira biztanle gehien dituzten auzoak. Plazako biztanleria, azken 5 urteetan, urtero ugaritzen joan da. Antzeko zerbait gertatu da Aldapa, Arana eta Azaldegi auzoetan. Aldiz, Ernio eta Sakamidran, biztanle kopurua gutxitu egin da. Santiago Ermita Bidean egin diren etxe berrietan, 2005ean jarri da jendea bizitzen.


HERRITARREN DIAGNOSTIKOA**DATU OBJEKTIBOAK****1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA**

- Oso haur gutxi jaiotako urteak izan dira baina azken urteetan jaiotako haurren kopurua ugartuz doa. Honek eskolaren jarraipena bermatzen du. Fenomeno honengan eragina izan dezakete etxe berriak eraikitzeak herritarren ustez, jende berria datorrelako edo/eta herriko bikote gazteak hauetan kokatzen direlako.

Orokorrean, nabarmentzekoa da azken bost urteetan biztanleria %18 inguru igo dela.



Azken lau urteetan jaiotza-tasa heriotza-tasa baino altuagoa izan da eta honek, etorkinekin batera, biztanleriaren gorakadan eragina izan du. Aipatzekoa da, jaiotza-tasa eta heriotza-tasak 1000 biztanleko kopurutan adierazten direla, Alkizako, zein Gipuzkoako kasuetan.




Gipuzkoako batezbesteko jaiotza- eta heriotza-tasak nahiko egonkorak diren bitartean, Alkizakoak gora-

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK																																										
1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA																																											
	<p>behera handiak dituzte, biztanle kopuru txikiak baldintzatuta.</p> <p>Gipuzkoako batezbesteko jaiotza-tasarekin alderatuz, Alkizakoa orokorrean azpitik mantentzen da. 1991an eta 2001ean, asko gerturatu da Gipuzkoako tasara. Aipatzekoa 1981ean ez zela bat ere jaiotzarik egon herrian.</p> <p>Heriotza-tasari dagokionean, Alkizakoa oso aldakorra da, zenbaitetan Gipuzkoako batezbestekoaren gainetik eta beste zenbaitetan azpitik kokatuz.</p>																																										
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Batzuen ustez biztanleria nahiko zaharkitua dago baina beste batzuek ikusten dute prozesu horri buelta ematen ari zaiola orain herrian, haur asko ari delako jaiotzen. ▪ Bakarrik bizi diren zaharrak ez omen dira horrenbeste, oraindik seme edo alabaren bat etxean gelditzeko ohitura mantentzen delako. Hala ere, zenbaiten ustetan zaharrekin arazoak izango dira etorkizunean. ▪ LEHENTASUNA EMATEN ZAIO, BASERRIETAN BAKARRIK NAHIZ FAMILIAN BIZI DIREN 60-65 URTETIK GORAKOEN INGURUKO GIZARTE ZERBITZUEN ESKARIA AZTERTZEARI. IZAN ERE, BIZTANLERIAREN TALDE HORRETATIK DATOR ETXEZ-ETXEKO LAGUNTZA JASOTZEKO ESKAERAREN IGOERA, ETA KONTUAN IZAN BEHAR DA ZERBITZU HAU DELA BALIABIDE GEHIEN ESKATZEN DUENA. 	<p>1.1.3. Biztanleriaren egitura (adina eta sexuaren arabera).</p> <div data-bbox="730 846 1374 1496" style="border: 1px solid black; padding: 10px;"> <p style="text-align: center;">Biztanleria sexu eta adinaren arabera (1981-2001)</p> <table border="1" style="margin-top: 10px; width: 100%; text-align: center;"> <caption>Data for Biztanleria sexu eta adinaren arabera (1981-2001)</caption> <thead> <tr> <th>Year</th> <th>♂ 0-19</th> <th>♀ 0-19</th> <th>♂ 20-64</th> <th>♀ 20-64</th> <th>♂ >65</th> <th>♀ >65</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>1981</td> <td>50</td> <td>45</td> <td>85</td> <td>65</td> <td>15</td> <td>20</td> </tr> <tr> <td>1986</td> <td>40</td> <td>38</td> <td>100</td> <td>65</td> <td>15</td> <td>15</td> </tr> <tr> <td>1991</td> <td>30</td> <td>28</td> <td>100</td> <td>70</td> <td>25</td> <td>20</td> </tr> <tr> <td>1996</td> <td>28</td> <td>18</td> <td>90</td> <td>75</td> <td>35</td> <td>20</td> </tr> <tr> <td>2001</td> <td>30</td> <td>18</td> <td>85</td> <td>75</td> <td>35</td> <td>20</td> </tr> </tbody> </table> <p style="font-size: small;">Iturria: Eustat</p> </div> <p>0-19 urte arteko biztanleria gutxitu egin zen 1981etik aurrera. Badirudi, 2001ean joera hori aldatzen hasi zela. 20-64 urteko biztanleriari dagokionean, nabarmentzekoa da gizonen kopurua gehiago izan direla adin tarte honetan emakumeenak baino, batik bat 1981etik 1991ra. 1991tik aurrera gizonen kopurua jaitsi egin zen, emakumeenak igotzen jarraitu zuen bitartean. 65 urtetik gorakoak ugaritzen joan dira eta 1991tik aurrera, biztanleriaren zahartze prozesuaren ezaugarri da hau.</p> <p>Orokorrean gizonen kopurua gehiago dago Alkizan emakumeenak baino.</p>	Year	♂ 0-19	♀ 0-19	♂ 20-64	♀ 20-64	♂ >65	♀ >65	1981	50	45	85	65	15	20	1986	40	38	100	65	15	15	1991	30	28	100	70	25	20	1996	28	18	90	75	35	20	2001	30	18	85	75	35	20
Year	♂ 0-19	♀ 0-19	♂ 20-64	♀ 20-64	♂ >65	♀ >65																																					
1981	50	45	85	65	15	20																																					
1986	40	38	100	65	15	15																																					
1991	30	28	100	70	25	20																																					
1996	28	18	90	75	35	20																																					
2001	30	18	85	75	35	20																																					

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA


DATU OBJEKTIBOAK

1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA

Biztanleria sexu eta adinaren arabera
(2005.eko urtarrila)

Iturria: Udala

Argi dago piramideak txapel astuna duela, 40-65 adin klasea pertsona kopuru handiena biltzen baitu. Hurrengo hamarkadetan biztanleriak zaharkitzen jarraituko du, inmigrazioari esker gazteak etortzen ez badira behintzat.

Biztanleriaren egituraren konparaketa
(2001)

Iturria: Eustat


Biztanleriaren egitura Tolosakoaren, Gipuzkoakoaren eta

HERRI TARREN DIAGNOSTIKOA			DATU OBJEKTIBOAK																																		
1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA																																					
			EAEko batezbestekoen oso antzekoa da Alkizan. Nabarmentzekotan, esan biztanleriaren %20a 65 urtetik gorakoa dela. Aipatutako hiru erreferentzietan, portzentaia hau baxuagoa da.																																		
<ul style="list-style-type: none"> FAMILIA BEHERAPENAK PROPOSATZEN DA. 	<ul style="list-style-type: none"> UGARIEK IZAN DITZATELA 	<ul style="list-style-type: none"> ZERGETAN DITZATELA 	<p>1.1.4. <u>Familien egitura eta tamaina.</u></p> <table border="1"> <caption>Familien egitura (1991-2001)</caption> <thead> <tr> <th>Urtea</th> <th>Pertsona bakarrekoa</th> <th>Konposatua</th> <th>Gunea seme-alabarik gabe</th> <th>Guraso bakarrekoa</th> <th>Gune askotarikoa</th> <th>Gunea seme-alabekin</th> <th>Handitua</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>1991</td> <td>10</td> <td>3</td> <td>3</td> <td>2</td> <td>16</td> <td>12</td> <td>13</td> </tr> <tr> <td>1996</td> <td>14</td> <td>2</td> <td>5</td> <td>5</td> <td>19</td> <td>13</td> <td>10</td> </tr> <tr> <td>2001</td> <td>19</td> <td>4</td> <td>10</td> <td>4</td> <td>27</td> <td>11</td> <td>8</td> </tr> </tbody> </table> <p>Iturria: Eustat</p> <p>1991az geroztik ugartzen joan diren familiak, pertsona bakarrekook, seme-alabarik gabeko guneak eta seme-alabadun guneak izan dira. Gune askotariko familiak berriz gutxitzen joan dira. Landa eremuetako famili tradizionalaren egitura aldatzen ari da.</p> <p>Pertsona bakarreko eta seme-alabarik gabeko guneen ugartzeak epe ertainean gizarte zerbitzuetako beharren ugartzea ekar dezake, bakarrik dauden pertsona horiek adinduak badira batik bat.</p>			Urtea	Pertsona bakarrekoa	Konposatua	Gunea seme-alabarik gabe	Guraso bakarrekoa	Gune askotarikoa	Gunea seme-alabekin	Handitua	1991	10	3	3	2	16	12	13	1996	14	2	5	5	19	13	10	2001	19	4	10	4	27	11	8
Urtea	Pertsona bakarrekoa	Konposatua	Gunea seme-alabarik gabe	Guraso bakarrekoa	Gune askotarikoa	Gunea seme-alabekin	Handitua																														
1991	10	3	3	2	16	12	13																														
1996	14	2	5	5	19	13	10																														
2001	19	4	10	4	27	11	8																														

HERRI TARREN DIAGNOSTIKOA


DATU OBJEKTIBOAK

1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA





Alkizako familien batezbesteko tamaina handiagoa da Tolosaldeako, Gipuzkoako eta EAEko batezbestekoa baino. Landa eremuetako familien ezaugarrietako bat tamaina handikoak izatea izan da, eta badirudi oraindik Alkizan joera hori mantentzen dela.

- Azken urteetan kanpotar asko etorri dira herrira, bai erdigunean egin diren etxe berrietara, bai hutsik zeuden hainbat baserrietara ere. Biztanleriaren aldaketa honen inguruan iritzi desberdinak daude.
- Batzuk ez dute oso gogoko kanpotarrak herrira etortzea.
- Kanpotarren ikuspuntua herrikoenarekiko ezberdina izango da beti, ez dira konturatzen landa eremuko herri batera etorri direla bizitzera eta mota honetako herriak, politak izateaz gain, beste alderdi batzuk ere badituztela. Landa herri bateko ohiturak errespetatu behar dituzte.
- Kanpotik etorri diren batzuk herri giroan txertatzen dira eta beste batzuk ez. Zenbaiten ustez, ez da erraza izaten txertatze hori, askotan herritarrek egiten dutelako bereizketa. Integratzea errazagoa da haurrak izanez gero edo bikoteko bat bertakoa bada.

1.1.5. Migrazio mugimenduak

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA**DATU OBJEKTIBOAK****1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA**

- Herrian egiten diren kultur-ekintzetan parte hartzen duten gehienak kanpotik Alkizara bizitzera etorritakoak dira, herritarrek ez dute ohiturarik.
- Kanpotik etorri diren zenbaitek lo bakarrik egiten dute herrian. Batzuk haurrak ere lan egiten duten herriko eskolara eramaten dituzte.
- **KANPOTIK HERRIRA BIZITZERA DATOZENEN INTEGRAZIOA EZ DA ARAZO MODUAN IKUSTEN.**
- **EZ DA USTE ALKIZA LO EGITEKO HERRIA BIHURTZEKO ARRISKUPEAN DAGOENIK, BAINA BADA EZPADA MEDIOAK JARRI BEHAR DIRA HORRELA GERTA EZ DADIN.**



Etorkin gehienak Tolosaldeetik datoz eta, aldi berean, herritik joan diren gehienak Tolosaldeara joan dira. Aipatutako denbora tarte horretan, joandakoak baino gehiago izan dira etorritakoak.

Egia da etorkinen kopuru bat Alkizan egin diren etxe berrietara etorri dela baina migrazio mugimenduak ez daude erabat faktore horri lotuta. Etxe berrien eraikuntzak gehien baldintzatu duen inmigrazioa 2004koa izan da: 12 etorkinetatik 7 etorri ziren Santiago Ermita bidean egin ziren etxe berrietara.

HERRI TARREN DIAGNOSTIKOA**DATU OBJEKTIBOAK****1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA****Interpretazioa**

Alkizako biztanle-dentsitatea baxua da, landa eremuko herrietan gertatu ohi den bezala. Biztanle dentsitate baxuak baldintzatzen ditu, zerbitzu, ekipamendu eta azpiegituren hornidurak (hezkuntza, kirola, osasuna, aisia, dendak...). Biztanleriaren gehiengoa Plazan eta Arana bailaran bizi da. Azken bost urteetan biztanleriak %18an gorantz egin du. Egin diren etxe berriek horretan eragina izango zuten, baina bai eta jaiotze-tasan eman den gorakadak ere. Elkarrizketatuek azken urteetan haur asko jaiotzeak direla diote.


1981etik 2001era, 0-19 adin tartekoak gutxitu dira eta 65 urtetik gorakoak ugartu. Hala ere, 2001eko biztanleriaren egitura Tolosaldeakoaren oso antzekoa da, 65 urtetik gorakoak kopurua Alkizan zertxobait altuagoa den arren. 40-65 adin klasea da ugariena, eta datu honen arabera, 65 urtetik gorakoak kopuruak hazten jarraituko duela espero behar da.

Familien egiturari dagokionean, pertsona bakarrekoak, seme-alabarik gabeak eta seme-alabadunak ugartu egin dira. Lehen bi motakoen ugartze horrek epe ertainean gizarte zerbitzuen beharretan eragina izan lezake (pertsona horiek adinduak badira), nahiz eta batzuen ustez behar horiek oraindik ez diren hain nabarmenak seme edo alabaren bat gurasoen etxean bizitzen gelditzeko ohitura oraindik mantentzen delako. Gune handituak berriz gutxitu egin dira. Dena dela, familien tamaina Alkizan, Tolosaldean, Gipuzkoan eta EAEn baino handiagoa da. Herri Batzarrean, lehentasuneko gai bezala azaldu da 60-65 urtetik gorakoak inguruko gizarte zerbitzuen eskaria aztertzea.

Azken bost urteetan, gehiago izan dira Alkizara etorritakoak herritik joandakoak baino. Etorri direnak, herriguneko etxe berrietara, nahiz hutsik zeuden baserrietara etorri dira. Herritar berrien integrazio maila desberdina da, baina Alkizan jaiotako batzuen ustez, kanpotik etorritakoek herriarekiko ikuspegi desberdina dute. Herri Batzarrean, kanpotik herrira bizitzera datozenen integrazioan ez da arazorik detektatu, eta ez da nabaritu Alkiza lo egiteko herria bihurtzeko arriskurik, baina horrela gerta ez dadin neurriak hartzea komenigarri ikusi da.

1.2 Jarduera ekonomikoa eta enplegua

- Herrian bertan ez dago ia industriarik eta bertan lan egiten dutenak tabernetakoak, eskolakoak eta barnetegikoak dira. Herrian bertan lan egitea ez da erraza beraz.
- Alkizar askok lan egiten du Anoeta edo Asteasu inguruko tailerretan. Autonomoak direnak era badaude, bai eta igeltseritzan, garraioan... aritzen direnak ere. Mutilek dituzten lanei buruzko erreferentzia egiten dute gehienek lanari buruz galdetzerakoan. Neskei dagokienean, dendetan, haurrak zaintzen... lan egiten omen dute. Kontraesanak sortzen dira, izan ere, beste batzuen ustez neskek goi-mailako ikasketak egiteko joera gehiago agertzen dute. Dena dela, etxeko lanak egiten aritzen direnak ere asko omen dira, batik bat 30-40 urte

1.2.1. Enplegua**1.2.1.1. Biztanleria aktiboa eta ez aktiboa**

HERRI TARREN DIAGNOSTIKOA

DATU OBJEKTIBOAK


1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA

ingurukoak.


- HERRIAN IA LANTEGIRIK EDO INDUSTRIARIK EZ IZATEA ARAZO LARRIA DA, BAINA EZ BERTAKOEK LANERA KANPORA JOAN BEHAR DUTELAKO, UDALAK DIRU SARRERA GUTXI DITUELAKO BAIZIK.
- LANTEGIAK ETA INDUSTRIA BULTZATZEKO PABILOIEN BEHARRIK EZ DA IKUSTEN, TAILER TXIKIAK EGOKIAGO IKUSTEN DIRA.
- EMAKUMEZKOEN LANGABEZIA EZ DA ARAZO LARRI GISA IKUSTEN.

Biztanleria ez aktiboaren gehiengoa emakumea da. Hala ere, gizonetzko ez aktiboaren kopurua asko igo da 1986tik 2001era. Emakumezkoena berdintsu mantendu da.

1.2.1.2. Langabezia tasa eta kopuru totala sexu, adin eta ikasketa mailaren arabera



Emakumeen langabezia tasa gero eta altuagoa da 1986az geroztik. Gizonezkoen langabezia tasa, gora-beherak izan dituen arren, 2001ean oso baxua zen.




Alkizan 3 langabetu daude, guztiak emakumeak. Alkizako

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA

DATU OBJEKTIBOAK


1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA

langabetuen kopurua hain txikia izanda, ezinezkoa da Tolosaldeako, Gipuzkoako eta EAeko batezbestekoekin konparatu.



Hiru langabetuak zerbitzuen sektorekoak dira. Tolosaldean, Gipuzkoan eta EAEn, batezbeste, zerbitzuen sektorea da langabetu gehien dituen.

- Tolosaldean egiten omen dute lan herritar gehienek.
- Herrian bertan enpresa txiki bat sortu dute herritar batzuk eta ekimena oso interesgarritzat jo da. Zenbaiten ustez etorkizuna hortik etor liteke, industrialde bat sortzetik baino gehiago. Herrian bizi eta herrian lan egiten dutenen kopurua handia izatea positiboki baloratzen da.
- LANTEGIAK ETA INDUSTRIA BULTZATZEKO PABILOIEN BEHARRIK EZ DA IKUSTEN, TAILER TXIKIAK EGOKIAGO IKUSTEN DIRA.



Bere herrian lan egiten duen pertsonen portzentaia nabarmen txikiagoa da Tolosaldea, Gipuzkoa eta EAeko batezbestekoak baino. Hala ere, norberaren etxean lan egiten dutenak askoz gehiago dira Alkizan beste hiruetan baino (dudarik gabe nekazaritzak eragina du


HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK										
1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA											
	<p>datu honetan). Alkizan, herritarren %80ak herritik kanpo egiten du lan.</p>										
	<p>1.2.2. Egitura ekonomikoa</p> <p>1.2.2.1. Barne Produktu Gordina</p> <div data-bbox="715 539 1390 958" style="border: 1px solid black; padding: 5px;"> <p style="text-align: center;">Barne Produktu Gordina biztanleko (2000)</p> <table border="1" style="margin-left: auto; margin-right: auto;"> <thead> <tr> <th>Herria</th> <th>Biztanleko BPGa (€)</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>Alkiza</td> <td>10.873</td> </tr> <tr> <td>Tolosaldea</td> <td>19.962</td> </tr> <tr> <td>Gipuzkoa</td> <td>19.691</td> </tr> <tr> <td>EAE</td> <td>19.316</td> </tr> </tbody> </table> <p style="font-size: small;">Iturria: Eustat</p> </div> <p>Alkizako Barne Produktu Gordina Tolosaldeako, Gipuzkoako eta EAeko batezbestekoak baino baxuagoa da. Ia industriarik ez izateak eragina du datu honetan, dudarik gabe.</p> <p>1.2.2.2. Jarduera ekonomikoak</p> <p>1.2.2.2.1. Enpresa/Establezimendu zerrenda</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ <u>INDUSTRIA:</u> <ul style="list-style-type: none"> - Baldosas Jarri. - Soaitz zorrozketak. - Erniope modelook. ○ <u>ZERBITZUAK:</u> <ul style="list-style-type: none"> - Belarmendi. - Herriko Ostatua. - Elizegi Taberna. - Otsamendi Jatetxea. - Lete Nekazalturismoa. ○ <u>AUTONOMOAK:</u> <ul style="list-style-type: none"> - Herrian norbere kontura lan egiten dutenak dezente dira. <p>▪ 2004ko Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zergaren zerrendan, 37 aktibitate agertzen dira.</p>	Herria	Biztanleko BPGa (€)	Alkiza	10.873	Tolosaldea	19.962	Gipuzkoa	19.691	EAE	19.316
Herria	Biztanleko BPGa (€)										
Alkiza	10.873										
Tolosaldea	19.962										
Gipuzkoa	19.691										
EAE	19.316										

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA**DATU OBJEKTIBOAK****1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA**

- Baserritik bizi diren herritarrak gero eta gutxiago dira. Lehen baserrian lan egiten zuten herritar gehienek baina gazteek ez dute lan horrekin jarraitu nahi izan. Baserria bultzatzea zaila ikusten da, lan ikaragarri egin behar delako eta irabazpide gutxi ematen duelako. Hala ere, zenbaiten ustez, baserritarrek ingurua zaintzen egiten duten lana ez da baloratzen behar bezala.
- BASERRIAN GEROZ ETA JENDE GUTXIAGOK LAN EGITEA, BATEZ ERE GAZTEEK BERTAN GERATU NAHI EZ DUTELAKO, ARAZO LARRITZAT BALORATU DA.**

- EAEko Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren arabera, hiru kategorietako batean sailka daitezke udalerrriak: jarduera ekonomikoa ezartzeko lehentasunezko interesekoak, hazkunde motelekoak eta garapen txikikoak. Azken honetan sailkatzen du LAPak Alkiza. Alkiza, gainbehera ekonomikoa edota demografikoa duen zona denez, ekintza dinamizatzaile eta sustatzaileak programatzeko komenigarritasuna aipatzen du.
- Plan honen arabera Alkizan ez dago jarduera ekonomikoetara zuzenduriko lurzorurik.
- Lurraldearen Arloko Plan honen arabera, Alkizan ez da aurreikusten merkataritza ekipamendu handirik ezartzea, gehienez 15.000m² azalera garbia eta 5000m²ko sabai-azalera duen eraikina ipintzea izango litzateke posible.

1.2.2.2.2. Langile kopurua sektoreka



Nekazaritzan lan egiten dutenen proportzioa Tolosaldeako, Gipuzkoako eta EAEko batezbestekoak baino altuagoa da, landa eremuko herria delako Alkiza. Hala ere, kontuan izan behar da 13 pertsona besterik ez direla. Industrian lan egiten dutenena, Tolosaldeakoa eta Gipuzkoakoa baino baxuagoa da. Zerbitzuetan lan egiten dutenen portzentaia zerbait baxuagoa da Tolosaldeako, Gipuzkoako eta EAEko batezbestekoaren aldean.

HERRI TARREN DIAGNOSTIKOA**DATU OBJEKTIBOAK****1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA****Interpretazioa**

Alkizako biztanleria ez aktiboaren gehiengoa emakumeek osatzen dute, eta berdina gertatzen da langabezia tasarekin. 1986tik 2001era emakumezkoen langabezia tasa igotzen joan da, agian lan mundura salto egin nahi izan duten emakumeak gero eta gehiago direlako. 2001eko gizonezkoen langabezia tasa oso baxua zen eta 2005ean Alkizan ez dago batere gizon langabeturik, izan ere, 3 emakume dira langabezia dauten bakarrak, hiruak zerbitzuen sektorekoak. Esan genezake emakumeek zailtasun gehiago dituztela lana aurkitzeko garaian. Hala ere, Herri Batzarrean eztabaidatu zenaren arabera, ez da arazo larri moduan ikusten emakumezkoen langabezia tasa handiago izatea.


Landunen %20ak herrian bertan lan egiten du, horietatik gehiengoak norberaren etxean. Tabernan, eskolan, barnetegian eta nekazaritzan lan egiten dutenetaz ari gara. Etxean lan egiten dutenen kopurua altua da, ziurrenik nekazaritzan jarduten dutenekin loturik dagoen datua delako. Herritik kanpora mugitzen direnen portzentaia Tolosaldeakoa, Gipuzkoakoa eta EAeko baina altuagoa da, agian Alkizan bertan ez dagoelako ia industriarik ez eta zerbitzurik ere. Alkizan ia industriarik edo lantegirik ez izatea konpondu beharreko arazo larri moduan ikusi da Herri Batzarrean, arrazoi honegatik, udalak diru sarrera gutxi baititu.

Barne Produktu Gordina txikiagoa da Tolosaldeakoa, Gipuzkoakoa eta EAeko baina, esan bezala, herrian aktibitate ekonomiko gutxi daudelako.

Nekazaritzan lan egiten dutenen portzentaia altua da, baina elkarrizketatuek baserriaren etorkizuna beltz ikusten dute, gazteek ez dutelako baserrian lanean jarraitu nahi izan. Baserriaren galera, arazo larri moduan ikusi da Herri Batzarrean. Industrian lan egiten dutenen portzentaia baxuagoa da Tolosaldeakoa baina. Herritik kanpo lan egitera joan beharra, ez da arazo moduan ikusi Herri Batzarrean. Jarduera ekonomikoak bultzatzeko, Herri Batzarrean ez da pabiloiak eraikitzeke beharrik azaldu. Egokiago ikusten dira tailer txikiak.

1.3. Oinarrizko zerbitzuak eta azpiegiturak. Bizi kalitatea


- Adostasuna nabari da kopuru aldetik momentu honetan etxebizitza arloan ez dagoela arazorik esaterakoan. Bakarren batek ikusten du etxe gehiago eraikitzeke beharra.
- Iritzi kontrajarriak daude: batzuen ustez etxeak herrian sortzen den eskariaren arabera eraiki behar lirateke, beste batzuek herritarrei lehentasuna ematea baloratzen dute, eta bada kanpotarrei ateak irekitzea positiboa dela uste duenik ere.

1.3.1. Etxebizitza**1.3.1.1. Etxebizitza kopuru totala eta eboluzioa**

Etxebizitzen kopurua handitzen joan da azken urteetan. 1991tik 2001era, 31 etxebizitza berri egin dira guztira.

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA**DATU OBJEKTIBOAK****1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA**

- Batzuen iritziz hausnarketa bat egitea falta da: herriak zenbat hazi behar du?. Etxebizitzak egin aurretik, non, norentzat eta zertarako egingo diren ondo pentsatzea falta dela iruditzen zaie. Urbanizazio aldetik planifikazio txarra dagoela uste duenik ere bada, ez delako aurreikusten, adibidez, etxeak egitearekin batera, aparkalekuak gehitzea beharrezkoa dela.
- HERRITARREK LEHENTASUN HANDIA EMATEN DIOTE HERRIAK ZENBAT ETA NOLA HAZI BEHAR DUEN EZTABAIDATZEARI. EZTABAIDA HONETAN ETXEBIZITZEN ITXURAREKIKO IRIZPIDEAK FINKATU, URBANIZAZIO MODU EGOKIAK ETA ANTZERAKOA PUNTUAK EZTABAIDATU BEHARKO LIRATEKEELA USTE DA.
- ETXE BERRIAK EGITERAKOAN, LEHENTASUNA HERRITARREK BEHAR DUTELA ADOSTU DA.



2003an baimendu ziren etxeetatik 10, Santiago Ermita bideko bi bizitzako etxeak dira. 2005ean baimendutako etxe tasatuak berriz orain hasi dira eraikitzen. Hala ere, ikusten da azken urteetan etxebizitzak eraikuntzak indarra hartu duela. Etxebizitza berri guzti hauek herrigunean kokatzen dira.

Alkizako AASSen, Hiri Antolamenduko Arauen testua 1996koa da.


- 2003an onartu zen AASSen lehenengo aldaketa: babes publikoko etxebizitzak egiteko lurra birklasifikatu zen aldaketa honen bidez. Gaur egun, etxe horiek eraikitze fasean daude.
- Bigarren aldaketa tramitazio fasean dago eta lurzoru hiritar ezinari dagokionez, Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazio Bateratua egitea beharrezkoa izan da. Lurzoru mota honi buruzko erregimena zehazten du aldaketa honek.
- Udalak antolamendu arauen errebisio oso bat egiteko asmoa du, batik bat herrigunean eraikitzeko aukerak agortuta daudela ikusten duelako.

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA


DATU OBJEKTIBOAK

1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA

- Perualdean eraiki behar dituzten etxe tasatuen sustapena ongi ikusi da, baina asko atzeratu omen dira eta horrek prezioen gorakada ekarri du.
- Santiago Ermita bide ondoan egin diren etxeak garestiagoak izan dira eta kanpotarrek erosi dituzte, baina itxura aldetik zenbait herritarrek ez dituzte gogoko. "Pegote" moduan gelditu omen dira, denak elkarren jarraian berdin-berdinak.
- HERRITARREK LEHENTASUN HANDIA EMATEN DIOTE HERRIAK ZENBAT ETA NOLA HAZI BEHAR DUEN EZTABAIDATZEARI ETA EZTABAIDA HONETAN ETXEBIZITZEN ITXURAREKIKO IRIZPIDEAK FINKATU BEHAR DIRELA USTE DA.



1.3.1.2. Etxebizitza motak



Eustaten datuen arabera, Alkizako etxebizitzaren %70 etxebizitza nagusia da. Gainerako etxe guztiak okupatu gabeak dira eta hauen portzentaia Tolosaldeako, Gipuzkoako eta EAeko batezbestekoa baino altuagoa da. Aipatzekoa da ez dela agertzen bigarren etxebizitzarik.

Udalaren datuen arabera, Alkizako 40 etxetan ez dago inor erroldatua. Udal ordezkariak emandako informazioaren arabera ordea, 40 etxe horietako 13tan norbait bizi da, beraz 27 etxe lirateke hutsik daudenak.



HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK
1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA	
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Etxeetako azpiegituren inguruan orokorrean ez da kexarik jaso. Interneteko konexioa hobetzea beharrezkoa ikusten da (badakite radio-frekuentzia bidezko konexioa jarriko dutela laster). Zenbaiten ustez, Hezkuntza sailak barnetegian aplikatzen duen Premia Plana eta Euskaltelek udalari eskaintzen diona koordinatu beharko lirateke. ▪ Auzoetako etxe askok gas depositu propioak dituzte. Kasu batzutan, etxeak elkarren inguruan daudenez, gas depositu kolektiboak bultzatu beharko lirateke 	<p>1.3.1.3. Etxebizitza aurreikuspenak</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Anoeta aldetik gatozela, herri sarreran, Perualdean, 22 etxebizitza egitea aurreikusita dago: <ul style="list-style-type: none"> - 5 bloke, bakoitza 4 etxebizitzadunak: tasatuak. Lehen fase batean hauetako bloke bat egin gabe geldituko da, erostunen zerrenda egiterakoan ez baitira horrenbeste eskaera jaso. Erostun guztiak herrikoak dira, gehienak gazteak. - Bi bizitzako etxe bat: librea. Udalak partzela salduko dio sustatzaile pribatu bati. ▪ Kontuan izan behar da Santiago Ermita bidean 2004ko abenduan amaitu dituztela sustapen pribatuko 10 etxebizitza (5 eraikin bi bizitzakoak). Guztiak salduta daude. ▪ Egungo Arau Subsidiarioetan ez da agertzen etxebizitzak egitera bideratutako beste lursailik. AASSen arabera lur urbanizagarrian egin zitekeen guztia martxan dago, eta gainera badirudi herrian zeuden behar nagusienak bete direla. Bestalde, herrian egin diren etxe tasatuen kopurua, bertan bizitzeko izena eman zutenen kopurua baino handiagoa dela aipatzekoa da. ▪ Etxebizitzen Sustapen Publikorako Lurzorua Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren aurrerapen fasean ageri denaren arabera, Alkizan lehendik dagoen parkea hobetzea eta berreskuratzeko oinarritzko politika birgaitze isolatuaren bidez egingo dela aurreikusten da. Dena dela, ez dira baztertzen eskari antolatua oinarritzat duten aukerako jarduerak. <p>1.3.1.4. Etxebizitzen erosotasun indizea</p> <p>Udaletxea internet mailako zerbitzu ezberdinen koordinazioa lortzen saiatu arren, erakunde edo departamentu ezberdinek lantzen dituzten gaiak izanik, udal eskumenetik kanpo gelditzen dira mota honetako ekipamenduen koordinazioa.</p> <p>Erosotasun-indizea, Tolosaldeako batezbestekoa baino altuagoa da Alkizan, baina Gipuzkoakoa eta EAEEKoa baino baxuagoa. Gasik ez egotea da nabariena. Hala ere, gaur egun herrigunean badago depositu bat eta bakarkako zenbait etxeetan gas depositu propioak</p>

HERRI TARREN DIAGNOSTIKOA**DATU OBJEKTIBOAK****1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA**

batzuen ustez.

- SAKELAKO TELEFONOEN OPERADORE GEHIAGO IPINTZEA PROPOSATU DEN ARREN, HONEK ANTENA GEHIAGO IPINTZERA BEHARTUKO LUKE HERRIA. HONEK KALTEAK DAKARTZANEZ, EZ DA ARGI IKUSTEN OPERADORE GEHIAGO IPINTZEKO BEHARRA.

dituzte. Etxe gehienek dituzte telefonoa, ur bero zentrala eta ur korrante publikoa.


**1.3.1.5. Etxebizitza bakoitzeko biztanle kopurua**

Esan genezake pertsona kopuru txikia (1,2,3) bizi diren etxeak ugaritu egin direla, 4 pertsona bizi direnak mantendu egin dira eta pertsona gehiago bizi diren etxebizitzak gutxituz joan dira. Famili egituraren aldaketa berriro ere nabari da datu hauetan.

HERRI TARREN DIAGNOSTIKOA

DATU OBJEKTIBOAK

1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA



Pertsona bakarra bizi den etxebizitzaren portzentaia handiagoa da Tolosaldeako eta Gipuzkoako batezbestekoa baino. Guztira 24 pertsona dira bakarrik bizi direnak eta beraz, Alkizako etxeen %25ean pertsona bakarra bizi da. 2 pertsona bizi direnen portzentaia berriz nabarmen baxuagoa da Tolosaldeako eta Gipuzkoako batezbestekoa baino eta 3, 4 eta 5 pertsona bizi direnen portzentaia berdintsuak dira. 6 eta 7 pertsona bizi diren etxeen portzentaia altuagoa da Tolosaldeako eta Gipuzkoako batezbestekoa baino.

- Herrian denda bat izatea ondo legoke, baina gehienek ustez apustu arriskutsua da, errentagarria izatea ez delako erraza ikusten. Erosketak kanpoan egitera ohituak daude eta gainera gehienek herritik kanpo lan egiten dutenez, hori ez da arazoa. Hala ere, herrira etortzen diren denda ibiltarietan ere erosten dute. Beharrezko produktuen bat falta izanez gero, tabernetan saltzen dute (ogia, azukrea...).
- Bada denda martxan jartzeko hainbat ideia ematen duenik ere: ogia etxeetara banatu beharrean dendan utzi dezatela, horrela jendeak bertatik pasa beharko luke eta bestelako gauzak ere erosiko lituzke. Garbi ikusten da dendak ordutegi malgua izan beharko lukeela eta

1.3.2. Zerbitzu orokorrak

- Gaur egun, herrian ez dago dendarik. Orain 20 urte arte, Elizegi tabernak denda gisara ere funtzionatzen zuen.
- Ogia etxeetara banatzen da, prentsarekin batera hala nahi izanez gero.
- Denda ibiltariak etortzen dira herrira: 2 fruta saltzaile etortzen dira herrira, produktu izoztuak... eskaintzen dituzte.
- Kutxazain automatikorik ez dago, gertuenekoak Anoetakoak eta Asteasukoak dira. Udala Kutxarekin harremanetan jarri da posibilitatea aztertzeko.
- Telefono publikoa erabili ahal izateko giltza Ostatuan eta Elizegi tabernan eskatu daiteke.

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK
1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA	
<p>dendariak dendatik gertu bizi beharko lukeela. Dendaria herritarra balitz, hobe. Bertako produktuak ere saldu beharko lirateke eta herriko baserritarrei galdetu beharko litzaieke ea prest leudekeen bere produktuak dendan jartzeko salgai.</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Zenbaiten ustez, dendaren erabiltzaile posibleak herrigunera azken urteetan etorri direnak izan litezke. ▪ Kutxazain automatikoa ere gustura hartuko lukete baina ez dute behar-beharrezkoa ikusten, nahiz eta kasu horretan, tabernara eta nekazalturismora datozenentzat ere erabilgarria izango litzatekeen. ▪ Batik bat, erdigunean bizi direnentzako izango lirateke erosoak zerbitzu hauek. ▪ Irurako posta zerbitzua erabiltzen dute eta ordutegi motz xamarra du, 11:00ak arte bakarrik egoten baita zabalik. ▪ Herriko buzoi guztiak udaletxe azpiko gela batean itxita egotea ez zaie egokia iruditzen batzuei. Hauen ustez postontziak deszentralizatu beharko lirateke, auzoetan eta baserri bideetan ipini, jendeak egunero pasa behar duen lekuetan. ▪ Telefono publikoa ere giltzapean dago eta ez du jartzen giltza nori eskatu behar zaion erabili ahal izateko. ▪ GUTUNONTZI GUZTIAK UDALETXE AZPIAN EGON ARREN, EZ DA ARAZO HAU LEHENTASUNEKOTZAT IKUSTEN. GUTUNONTZIEN DESZENTRALIZAZIOAK BANDALISMOA ERAKAR DEZAKEELA USTE DA. ▪ DENDARIK EZ IZATEA, TELEFONO PUBLIKOA GILTZAPEAN EGOTEA, ETA IRURAKO POSTA ZERBITZUA ERABILI BEHARRA, ARAZO EDO GABEZIAK IZAN ARREN, EZ DIRA LARRITZAT JOTZEN. GAUR EGUN KUTXAZAINIK EZ IZAN 	

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK
1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA	
<p>ARREN, DENBORA GUTXIAN JARRIKO DELA AIPATZEN DA.</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ SAKELAKO TELEFONOEN OPERADORE GEHIAGO IZATEKO AUKERA EMAN BEHARKO LITZATEKEELA AIPATU ARREN, HONEK ANTENA GEHIAGO IPINTZERA BEHARTUKO LUKE HERRIA. HONEK KALTEAK EKAR DITZAKEENEZ, EZ DA ARGI IKUSTEN OPERADORE GEHIAGO IPINTZEKO BEHARRA. 	
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Orokorrean herriko eskolaren egoera ona delakoan daude herritarrak. Psikomotrizitatea lantzeko leku egoki bat falta omen da eta horregatik kultur-etxea erabiltzen dute. ▪ Jangelarik ez eduki arren, tabernako zerbitzuarekin gustura daude, han prestatutako jana etxekoa bezalakoa delako. ▪ Haurtzaindegia herrian jartzea positiboki baloratzen da. Momentuan haur txiki asko daude eta gehiago omen datoz, eta bikoteko biak lan egiten dutenak ere asko omen dira, beraz, gero eta beharrezkoagoa izango da. Zenbaitek haurra lan egiten duen herriko haurtzaindegira eramaten du. Gainera, batzuen ustez, kanpoko haurtzaindegira eramateak kanpoko eskolara eramatea ere suposatu dezake eta horrek herriko eskola kaltetuko luke. Hala ere, batzuen ustez ondo aztertu behar da ea benetan zenbat haur joango diren herriko haurtzaindegira. Jendeari haurra eskolan bertan eskolaratzea erraztu behar zaio eta haurtzaindegia izatea pauso bat gehiago litzateke. ▪ Bakarren baten iritziz, eskolara doanez haurrentzako ere haurtzaindegi edo ludoteka sistema bat ongi etorriko litzateke. ▪ Bada udalaren eta eskolaren arteko erlazioa ez dela oso ona pentsatzen 	<p>1.3.3. Hezkuntza</p> <p>1.3.3.1. Udalerriko ikastetxea</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Herriko ikastetxean Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza eskaintzen dira. ▪ Ikastetxeak ez dauka jangelarik, hori dela eta Otsamendi tabernan bazkaltzen dute jangela zerbitzua behar duten haurrek. ▪ Herrigunean bizi ez diren haurrak, kotxe pribatuetan ekartzen dituzte eskolaraino. ▪ Eskolaz kanpoko aktibitateak kultur-dinamizatzaileak antolatzen ditu: <ul style="list-style-type: none"> - Asteartetan judoa. - Asteazkenetan Pilota Eskola. - Ostegunetan, arratsaldean eskolarik ez dutenez, perkusio ikastaroa, eskulan ikastaroa eta antzerki ikastaroa. - Ostiraletan "Kirola Ezagutuz". ▪ Guraso Elkartea badago. Aiztondo Mankomunitatearen bidez, hilean behin guraso eskola ere izaten dute. ▪ Haurtzaindegirik ez dute oraindik, baina proiektua martxan dago jada. Dirulaguntza ere lortu dute lokala egokitzeko EREINDIK. Dena dela, espazio arazoak dituzte, haurtzaindegia egiteko lokala eskolari kenduz gero, eskolak lokal berri bat beharko lukeelako. Udala haurtzaindegi erabilera izango duen lokalik aproposena lortzeko gestioak egiten ari da. ▪ Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza egitera Billabonara edo Tolosara joaten dira.


HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK
1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA	
<p>duenik.</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Billabonara doazen haurren garraioak zenbait "koska" ditu. Monobolumen motako ibilgailu baten bidez egiten da eta baserrietaraino iristen da, baina haur kopurua dela eta hiru bidaia egin beharra daukanez, haur batzuk ordubete goizago abiatzen dira goizean eta beste batzuk ordubete beranduago iristen dira eguerdian. Zain egon behar duten denbora, Asteasuko autobus geltokian igarotzen dute. Autobusa balego, denak batera ibiliko lirateke, baina herrigunean jaso eta utziko lituzke haur guztiak. ▪ Bat baino gehiago dira neskek mutilek baino goi-mailako ikasketak burutzeko joera handiagoa dutela uste dutenak. ▪ LEHENTASUNEZKOAK DIRA ESKOLA ETA UDALAREN ARTEKO HARREMANAK HOBETZEA ETA, HAURTZAINDEGI ZERBITZUA JARTZEA. AZKEN HONEN INGURUAN, BATEN BATEK AGIAN ANOETAKO HAURTZAINDEGIA ERABILTZEA AUKERA BAT IZAN DAITEKEELA PROPOSATZEN DU. ▪ ESKOLAN PSIKOMOTRIZITATEA LANTZEKO LEKURIK EZ EGON ARREN, EZ DA LEHENTASUN HANDIKO ARAZOTZAT IKUSTEN. ▪ DBHKO IKASLEEK VILLABONA-AMASAKO ESKOLARA JOATEKO DITUZTEN GARRAIO ARAZOAK EZ DIRA LEHENTASUNEZKOTZAT IKUSTEN, MOMENTUZ ESKOLARA JOATEKO IZAN DEZAKETEN AUKERARIK ONENA DUTELA USTE BAITA. ▪ JANGELAREN BEHARRIK EZ DA INONDIK INORA IKUSTEN, FUNTZIO HAU, TABERNAK EZIN HOBE BETETZEN BAITU. 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Billabonara taxian jaisten dira Asteasu aldeko bidegurutzeraino eta han autobusa hartzen dute Billabonaraino. Taxiak baserriz-baserri biltzen ditu. Bueltakoan, berdin. ▪ Tolosara doazen ikasleek (Institutua, Eskola Profesionala...) herritik pasatzen den autobus linea erabiltzen dute.

HERRI TARREN DIAGNOSTIKOA

DATU OBJEKTIBOAK


1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA

1.3.3.2. Ikasketa eremu bakoitzeko ikasle kopurua




Ikasle kopuruan ez da aldaketa nabarmenik eman. Gero eta gehiago dira bigarren mailako ikasketak egin dituztenak. Azken urteetan, erdi-/goi-mailakoak egin dituztenak ere ugaritu egin dira. Lanbide-heziketako ikasketak egiten dituztenen kopurua oso berdintsu mantendu da 1991az geroztik. Goi-mailako ikasketak egiten dituztenen kopurua ere ia ez da aldatu.

1.3.3.3. Biztanleriaren eskolatzeko maila



Lanbide-heziketako, bigarren mailako eta erdi-/goi-mailako ikasketak dituztenen proportzioak handituz joan dira. Alfabetatugabeen eta ikasketarik gabeen portzentaiak oso baxuak dira.

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK
1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA	
	<p style="text-align: center;">10 urtetik gorakoen ikasketa maila (2001)</p>  <p style="text-align: center;">Iturria: Eustat</p> <p>Eskolaurreko eta lehen mailako ikasketak dituztenen portzentaia altuagoa da Tolosaldeako, Gipuzkoako eta EAeko batezbestekoa baino. Lehen esan bezala, alfabetatugabeen eta ikasketarik gabeen portzentaia oso baxuak dira.</p>
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Anoetan jasotzen duten osasun zerbitzuarekin oso gustura daude. Bertara joaten ohituta daude. Ibilgailu pribatuan joaten dira denak. ▪ Sendagilea Alkizara etortzea gustatuko litzaike baina batzuk ez dute behar-beharrezkoa ikusten: ez litzateke egunero egongo, beraz zenbaitetan Anoetara jo beharko lukete orain bezalaxe; herrigunetik kanpo bizi direnek herrigunera gerturatzeko autoa hartu beharko lukete, eta behin autoa hartuta, berdin zaie Anoetara joatea. ▪ Hala ere, zerbitzu hau herrian izatea ona izango litzatekeela diote denek, batik bat herriguneko adinduentzat. ▪ EZ DA ARGI IKUSTEN HERRIAN SENDAGILE BATEN BEHARRA. EGOTEKOTAN, ASTEAN EDO 	<p>1.3.4. Osasuna</p> <p>1.3.4.1. Udalerriko osasun zerbitzua: ekipamenduak eta giza baliabideak</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Sendagilea ez da etortzen herrira, Anoetara joan behar izaten dute herritarrek aurrez txanda hartuta. ▪ Gaixoak ezin badu mugitu, sendagileak egiten dio bisita etxera. ▪ Peditra ere Anoetan egoten da. ▪ Erizaina Anoetan egoten da. ▪ Larrialdietara Tolosara edo Donostiara joan behar izaten dute. ▪ Gertuen dagoen farmazia, Anoetako da. <p>1.3.4.2. Eskualde mailako zerbitzua</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Anoetako bezalako osasun zentro txikietan ez dauden espezialistengana, Tolosako Anbulatoriora

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK																
1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA																	
<p>HAMABOSTEAN BEHINEKO MAIZTASUNA PROPOSATZEN DA, GAIXO KRONIKOEN, ADINDUEN ETA ELBARRITUEN JARRAIPENA EGITEKO HELBURUAREKIN BATEZ ERE.</p>	<p>bideratzen dira gaixoak.</p> <ul style="list-style-type: none"> Tolosako "Clínica Nuestra Señora de la Asunción" da eskualde mailako zerbitzua ematen duena. 																
<ul style="list-style-type: none"> Beharrezan izan direnek badute gizarte zerbitzuen berri, gainerakoek badakite behintzat gizarte laguntzailea astean behin etortzen dela eta zenbait herritarrek etxez-etxeko laguntza jasotzen dutela. Arlo honetan egiten den lana ongi baloratzen da eta behar-beharrezkoa ikusten da, batik bat etxez-etxeko laguntza. Etorkizunari begira behar gehiago sortuko direlakoan daude batzuk, baserrietan bakarrik biziko diren aitona-zahar gehiago izango direla pentsatuta. Gehien bat adinduen alorrekin erlazionatzen da gizarte-laguntza. Norbaiten ustez, agian etorkizunean izango da eguneko zentro baten beharra. Beste batek, horrelakorik ez dela beharko dio. Dena dela, adinduen gehiengoa seme-alabaren batekin bizi omen da eta kasu askotan hauek arduratzen dira gurasoen zaintzaz, kanpoko laguntzarik gabe. LEHENTASUNA EMATEN ZAIO, BASERRIETAN BAKARRIK NAHIZ FAMILIAN BIZI DIREN 60-65 URTETIK GORAKOEN INGURUKO GIZARTE ZERBITZUEN ESKARIA AZTERTZEARI. IZAN ERE, BIZTANLERIAREN TALDE HORRETATIK DATOR ETXEZ-ETXEKO LAGUNTZA JASOTZEKO ESKAERAREN IGOERA, ETA KONTUAN IZAN BEHAR DA ZERBITZU HAU DELA BALIABIDE GEHIEN ESKATZEN DUENA. HONEZ GAIN EMAKUMEEK BASERRIAN BETETZEN DUTEN PAPERAREN AZTERKETARI ERE LEHENTASUNA EMATEN ZAIO. 	<p>1.3.5. <u>Gizarte zerbitzuak</u></p> <p>1.3.5.1. Gizarte ongizateko Udal aurrekontua</p> <ul style="list-style-type: none"> Gizarte ongizateko zerbitzuak Aiztondo Mankomunitatearen bidez ematen dira, kultur-dinamizazio ekimenekin batera. Gizarte laguntzailea astelehen eguerditan etortzen da udaletxera. Gizarte ongizateko udal aurrekontua zenbatekoa den jakitea ez da erraza, gizarte eta kultura sailak nahasten direlako ordainketetan. Bestalde gizarte zerbitzuetan udalak nahiko garbi du etorkizunera begira, gai honen inguruan ikerketak eta planak egin beharko direla, eta jada gizarte langilearekin harremanetan daude gai hau jorratu asmoz. <p>1.3.5.2. Gizarte ongizateko problematika</p> <ul style="list-style-type: none"> Gizarte ongizateko problematika garrantzitsuenak hirugarren adinekoenak eta elbarrituak dira. <p>1.3.5.3. Gizarte ongizateko zerbitzuen eskaintza eta erabilzaileak</p> <ul style="list-style-type: none"> Azken urteetako onuradunen kopuruak ondokoak dira: <table border="1" style="width: 100%; border-collapse: collapse; text-align: center;"> <thead> <tr> <th></th> <th>2002</th> <th>2003</th> <th>2004</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>Oinarrizko Errenta</td> <td>1</td> <td>1</td> <td>1</td> </tr> <tr> <td>Gizarte Larrialdi. Laguntza</td> <td>3</td> <td>2</td> <td>2</td> </tr> <tr> <td>Etxez-etxeko laguntza zerbitzua</td> <td>2</td> <td>3</td> <td>6</td> </tr> </tbody> </table> <p>Iturria: Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatea</p> <ul style="list-style-type: none"> Alkizan ez dago eguneko zentrorik. Gertuen dagoena Billabonakoa da, Fraisorokoa. Hala ere, azken 20 urteetan ez da eskari bakar bat bera ere 		2002	2003	2004	Oinarrizko Errenta	1	1	1	Gizarte Larrialdi. Laguntza	3	2	2	Etxez-etxeko laguntza zerbitzua	2	3	6
	2002	2003	2004														
Oinarrizko Errenta	1	1	1														
Gizarte Larrialdi. Laguntza	3	2	2														
Etxez-etxeko laguntza zerbitzua	2	3	6														

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK
1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA	
<ul style="list-style-type: none"> ▪ ADINDUENTZAT EZ DA EGUNEKO ZENTRO BATEN BEHARRIK IKUSTEN. ▪ PROPOSAMENEN ARTEAN, ALKIZAKO ZERBITZUETARA IRISGARRITASUNA HOBETU BEHARKO LITZATEKEELA AIPATZEN DA. OZTOPO ARKITEKTONIKOAK KENDU BEHARKO LIRATEKE, UDALETXERA, KULTUR ETXERA, ETA ERAIKUNTZA BERRIETARA ERRAZ IRISTEA AHALBIDERATUZ. 	<p>egon.</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Etxebizitza tutelaturik ez dago. Gertuen daudenak Asteasuko baserri babestua eta Zizurkilgo pisu babestua dira. ▪ Momentu honetan, udalarena den etxebizitza bat herritarren larrialdi kasuetarako erabiltzen da. ▪ Tele-Alarmaren eskaera oso urria da. Mankomunitateak tramitazioa bakarrik egiten du, gastua udalarengan eta onuradunarengan gelditzen da. ▪ Bono-taxi zerbitzua: berez mugikortasun arazoak dituztenentzako da zerbitzu hau, baina herri txikietan nahikoa da autorik ez izatea norberaren izenean, 12 urte baino gehiago izatea eta gizarte laguntzaileak pertsona horrek duen beharraren berri emanaz txosten bat egitea. Hileko gehienez 60 € ematen zaizkio taxiaren erabiltzaileari. ▪ Alkizako Eskolan Guraso Eskola izaten dute hilean behin, psikologo baten laguntzarekin. ▪ Alkizan 12 pertsona daude % 33a baino gehiagoko minusbalia zertifikatuta dutenak. Horrek ez du esan nahi 12 elbarritu bakarrik daudenik, posible baita elbarritu batzuk zertifikaziorik ez eskatu izana. ▪ Alkizako eskola irakasleentzat, haurrenganako tratu txarrak detektatzeko ikastaroa antolatu nahi dute. ▪ Udaletxearen ondoan dagoen Don Juanena etxea birgaitzekotan dabil udala, bertan gizarte larrialdietarako apartamentu bat jarri nahi baitute.
<p>Interpretazioa</p> <p>Azken urteetan etxe dezente egin dira herrian eta aurten ere beste 16 etxebizitza tasatu egiten hasiko dira. Hori dela eta, adostasuna nabari da elkarrizketatuen artean eta Herri Batzarrean, oraingoz Alkizan etxe gehiagoren beharrik ez dagoela esaterakoan. Zenbaitek, etxeak herrian sortzen diren beharren arabera egin behar direla uste du. Alkizako 40 etxetan inor erroldaturik egon ez arren, horietarik hutsik dauden etxeak 27 dira udal ordezkarien arabera. Herri Batzarrean, etxebizitzaren gaiaren inguruan, herritarrek lehentasun handia ematen diote herriak zenbat eta nola hazi behar duen eztabaidatu/hausnartzeari, bertan etxeen itxurerekiko irizpideak finkatu, urbanizazio modu egokiak eta abar eztabaidatu beharko liratekeelarik.</p> <p>Egin diren azken etxeak, Santiago Ermita bidekoak, itxura aldetik ez dituzte oso gogoko elkarrizketatuek, denak hain berdinak, elkarren jarraian, herriaren itxura hausten dutelako.</p> <p>Etxeetako azpiegiturei dagokienean, internet sarea hobetzearen premia aipatu da. Barnetegi, Kzguneko</p>	

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA**DATU OBJEKTIBOAK****1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA**

eta Euskaltelek udalari eskainitako sistemak koordinatu beharko lirateke. Sakelako telefonoen operadore gehiago izateko aukera ez da argi ikusi Herri Batzarrean.

Aipatzekoa da Alkizan pertsona bakarra bizi den etxebizitzaren portzentaia altua dela, (%25) datu hau adinduen kopuru altuari lotzen badiogu, gizarte zerbitzuen beharren inguruko azterketa beharrezkoa dela ondorioztatzen da. Hain zuzen ere, gai honi lehentasuna eman zaio Herri Batzarrean.

Herri Batzarrean beharrezkoa ikusi ez arren, positiboki baloratzen da herrian denda bat izatea nahiz eta ez den oso garbi ikusten bere errentagarritasuna. Herritarrak ohiturik daude oinarrizko zerbitzuen bila herritik kanpo joaten. Kutxazaina aurki jartzeko bidean da. Posta zerbitzuaren inguruan, Irurako posta-zerbitzuaren ordutegi murriztua eta postontziak deszentralizatzeko aukera aipatu da, azken hauek auzoetara eta bide ondoetara atera behar liratekeela uste baitute batzuk. Telefono publikoa bistaratzea ere egokia litzateke. Aurretik aipaturiko gabezi hauek Herri Batzarrean eztabaidatu ostean, arazo direla argi geratzen da, baina ez dira lehentasunezko arazo gisa ikusten.

Hautzaindegia beharrezko ikusten dute herritarrek. Udala hautzaindegia erabili ahal izateko lokalik aproposena lortzeko gestioak egiten ari da, izan ere Udalak dirulaguntza ere lortua baitu. Hautzaindegiaren beharra lehentasunezko arazo gisa sailkatu da Herri Batzarrean.

Herriko eskolaren egoera ona da, nahiz eta aurreikuspenen arabera eta azken urtean haur asko jai direla ikusita, espazioa beharko duen. Eskolaz kanpoko nahikoa ekintza daude. Herri Batzarrean arazo larritzat sailkatu da, udala eta herriko eskolaren artean dagoen harreman txarra, eta beraz, beharrezkoa da hau hobetzea.

Orokorrean elkarrizketatuak gustura daude Anoetako Osasun Zentroan jasotzen duten zerbitzuarekin. Ohituta daude hara joaten baina ongi baloratuko lukete Alkizara sendagilea etortzea ere. Herri Batzarrean ez da behar-beharrezkotzat jotzen sendagilea Alkizara etortzea, baina adindu, elbarritu, eta batik bat herrigunean bizi direnei, ongi etorriko litzaieke zerbitzu hau herrian izatea.

Gizarte-zerbitzuen arloan egiten den lana ere ongi baloratzen da. Herri Batzarrean adostutakoaren arabera, baserrietan bakarrik nahiz familian bizi diren 60-65 urtetik gorako inguruko gizarte zerbitzuen eskaria aztertu behar da, izan ere, biztanleriaren talde horretatik dator etxez-etxeko laguntza jasotzeko eskaeraren igoera, eta kontuan izan behar da zerbitzu hau dela baliabide gehien eskatzen duena. Honez gain emakumeek baserrian betetzen duten paperaren azterketari ere lehentasuna ematen zaio.

▪ Ondare kulturalaz galdetuta, arkeologia, horma zaharrak eta karobiak aipatu dituzte elkarrizketatuek. Zenbaiten ustez, herritarrek ez dute sentzibilitate gehiegirik ondare kulturalarekiko, kultur ondarearen inguruko kontzientziarik ez omen dago. Bada ondare kulturala berritzeaz gain, gero mantendu ere egin behar dela dioenik ere (karobiak direla eta).

1.3.6. Kultura eta kultur ondarea**1.3.6.1. Ondare kulturala****Alkizako Balizko Arkeologia Guneak:**

Babes maila: Balizko Arkeologia Gunea (EHAA 220 zk., 97/11/17)

Udalerrri honetako Balizko Arkeologia guneak honako hauek dira (18 elementu guztira):

- Lete, Peru, Lizarzelai, Katalandegi, Garro, Urruzola, Etxesagasti, Azaldegi–Etxeberri, Garmendi eta Garaikoetxea baserriak.
- Santa Cruz baseliza (hondatuta).

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK
1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA	
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Herrian nahiko kultur-ekipamendu badagoelakoan daude. Kultur-etxeke gelak erabiltzen dira aktibitateetarako. ▪ Zenbaiten ustetan, adinduentzako lokal edo egoitza bat falta da herrian, zaharrei etxetik atera ahal izateko aitzakia eskaintzeko. Besteren batek berriz, ez daki horrelako leku bat prestatuta hara joateko ohiturarik hartuko ote luketen. 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Errotazarra - Errotaberri eta Igaran errotak. ▪ Belako Arkaitza kobazuloa I, Belakum kobazuloa II, Olatzazpi kobazuloa eta Zopite I eta II kobazuloak. <p>Zona, orube edo eraikin hauetan aurkitutako zenbait aztarna garrantzitsu aztertuta, bertan arkeologia-aztarnategi bat dagoela esan daiteke. Hala ere, arkeologia-aztarna hauek zein egoeratan kontserbatu diren eta berauen balioa ez dira ezagutzen, izan ere, orain artean ez baita indusketa sistematikorik egin.</p> <p><u>Itxuraingo Tumulua</u></p> <p><u>Garai orokorra:</u> Neolitoa - Eneolitoa-Brontze Aroa</p> <p><u>Babes maila:</u> Sailkatua (EHAA 133 zk., 03/07/08)</p> <p>Lurrak estalia dago (ez zaio kanpoaldera harririk azaltzen). Oraindik ere gordetzen duen egiturak interes handi-handia ematen dio monumentuari arkeologia aldetik.</p> <p><u>Ernioko Estazio Megalitikoa</u></p> <p>Udalerriak: Aia, Alkiza, Asteasu, Errezil</p> <p>Garai orokorra: Neolitikoa - Eneolitiko-Brontze Aroa - Burdin Aroa</p> <p>Monumentu Kopurua: 6.</p> <p>Hiru tumulu eta beste hainbeste trikuharrik osatzen dute estazio megalitiko hau.</p> <p>Estazio honetan ondorengo monumentu megalitikoak daude:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Otagain, Zaingo Bizkarra eta Zaingo Ordekako trikuharriak. - Belanburu, Itxurain eta Munaingo tumuluak. <p>1.3.6.2. Kultur ekipamenduak</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Barnetegiko solairu bat erabiltzen dute kultur-etxe moduan: liburutegia (Kzguna barnean duela), balioanitzeko gela eta ikus-entzunezko gela daude bertan. ▪ Aiztondo Mankomunitateko kultur-dinamizatzailea da arduraduna. Mankomunitatea Adunak, Alkizak, Larraulek eta Zizurkilek osatzen dute. ▪ Liburutegia astelehen eta ostegunetan egoten da

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK
1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA	
<ul style="list-style-type: none"> ▪ ADINDUAK BILTZEKO LOKAL BATEN BEHARRIK EZ DA IKUSI. ▪ Aktibitate nahikoa egiten dira gehienek ustez eta garai batean eskaintzen zenarekiko, arlo honetan asko hobetu da, kultur-dinamizatzaileari esker. Hala ere, ekintzetan parte hartzen dutenen gehiengoa kanpotik etorritakoa omen da, herrian jaiotako gutxi izaten dira. Azken hauek, ez dute horrelako aktibitateetarako ohiturarik. ▪ Ekintzak aurrera eramateko denentzako ongi datorren ordutegia bilatzea oso zaila da. ▪ Oilategitik Kultur Elkartea kanpotik Alkizara etorritakoei sortua da. Bakarren baten ustez, ez du ongi funtzionatu. ▪ Jubilatuentzako prestatzen diren irteerak ongi baloratzen dituzte. Orain arte joan ez direnak, aukera aprobetxatzekotan dabilta. Ohiturarik ez da izan orain dela gutxi arte eta kosta egiten zaie bidaiatzea. ▪ Festen inguruan herritarrak mugitzen dira eta aktibitate ugari antolatzen dituzte. Gazteak ibiltzen dira batik bat antolaketa lanetan. Batzuen ustez, azken urteetan berrikuntzak sartzen dira baina gazteenek behin eta berriz saiatu behar izaten omen dute bere gustuko gauzak egitarauan sartzeko. Haurrengan gehiegi ez dela pentsatzen dio gurasoren batek. ▪ PRESTATZEN DIREN EKINTZETAN PERTSONA GUTXIK PARTE HARTZEN DUTENAREN GAINEAN, EZ DA ADOSTASUNIK LORTU. EKINTZETAN PERTSONA GUTXIK PARTE HARTU ARREN, 	<p>irekita 17:00etatik 19:00etara.</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Kzgunea liburutegian bertan kokatzen denez, ordutegi bera du. ▪ Udaletxearen ondoan dagoen Don Juanena etxea birgaitzekotan dabil udala, herrian etorkizunean sortu daitezkeen zerbitzuei kokaleku egoki bat eman ahal izateko. <p>1.3.6.3. Jarduera soziokulturalak</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Haurrentzako antolatzen diren eskolaz kanpoko aktibitateez gain, helduentzako eskulanen ikastaroa (ostegun arratsaldetan 17:30etatik aurrera) eta aerobica ere (astelehen eta asteazkenetan 19:00etatik 20:00etara) badaude herrian. ▪ Bestelako ekintzak ere egiten dira: <ul style="list-style-type: none"> - Pelikula emanaldiak egiten dituzte hilabetean behin, bai haurrentzat, bai helduentzat. Pelikulak erosi edo alokatu eta Barnetegiko ikus-entzunezko gelan egiten dituzte emanaldiak. - Herritarrekin osatutako abesbatza ere martxan da. ▪ Mankomunitate mailan ere hainbat ekintza egiten dira lau herrietan: <ul style="list-style-type: none"> - Ipuin kontalariak. - Udaleku irekiak udan. - Eguberrietarako egun-pasa txangoak. - Ikastaroak: sukaldaritzakoak, gantxiloa, sendabelarrak... ▪ Herriko festak irailean ospatzen dituzte, 8an, Koruko Ama Birjinaren eguna dela eta. ▪ San Isidro eguna ere, maiatzaren 15ean, ospatzen dute. Udaletxeak afaria antolatzen du, beste zenbait ekintzekin batera.

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK
1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA	
<p>BIZTANLEEN PORTZENTAIA HANDIA DELA ADIERAZTEN BAITA.</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ FESTEN EGITARAUA GAZTEENTZAT ITXI XAMARRA DAGOELA AIPATZEN DA, NAHIZ ETA, AURTEN GAUZAK ALDATUKO DIRELA DIRUDIEN. 	
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Frontoia da herriko kirol instalazio bakarra eta zaharkitua dago. Gainera, euria egiten duenean ura sartzen da eta oso irristakorra jartzen da zorua. ▪ Pilota Eskolak haurrengan zaleak sortzeko balio du. ▪ Kirola egiteko beste modu bat, mendira ateratzea da. ▪ Hiru emakume biltzen dira aerobicka egitera. Horretarako erabiltzen duten kultur-etxeko gela, agian ez da oso egokia, baina momentuz erabilgarria den bakarra da. ▪ Gimmasiorik ez dago eta herriko gazte batzuk inguruko herrikoetara joaten dira, baina tasa altuagoak ordaindu behar izaten dituzte. Berdina gertatzen da igerilekura joateko orduan. ▪ ALKIZAK DUEN KIROLO EKIPIAMENDU BAKARRA FRONTOIA DA, ETA ZAHARKITUA DAGO. FRONTOIA BERRITZEKO EGIN BEHARKO LIRATEKEEN OBREI GIMNASIO BAT LOTU BEHARKO LITZAIEKEELA USTE DA. MODU HONETAN, AEROBIC EGITEKO GELA EGONGO LITZATEKE, ETA HERRITARREK EZ LUKETE INGURUKO INSTALAZIOEN BILA JOATEKO BEHARRIK IZANGO. 	<p>1.3.7. <u>Kirola</u></p> <p>1.3.7.1. Udaleko kirol ekipamenduak</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Herriak duen kirol instalazio bakarra frontoia da. Frontoiaren berritzeko proiektua lehentasunezkoa izan arren, berritzeak ekarriko lukeen kostua, udalak soilik ezin du bere gain hartu, eta mota honetarako proiektuetara bideratutako dirulaguntzarik ez dago. ▪ Erniope Pilota Elkarteak bideratzen du pilotarako herrian den zaletasuna. Haurrekin aritzen dira batik bat, Pilota Eskola antolatuz. ▪ Aerobicka kultur-etxeko gela handian praktikatzen dute. <p>1.3.7.2. Eskualdeko kirol ekipamenduak</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Alkizako herritarrek gehien erabiltzen duten eskualdeko instalazioa, Villabona-Amasako polikiroldegia da.

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA

DATU OBJEKTIBOAK


1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA

- Jende gehienak euskaraz hitz egiten du baina badira euskara ez dakitenak ere. Zenbaiten ustez, erdara gero eta gehiago entzuten da jendea biltzen den lekuetan: tabernetan, plazan... Kanpotik etorritakoak omen dira batez ere erdaraz hitz egiten dutenak.


- Batzuen ustez, haurrek eskolan txikitatik ikasten dute erdara eta ez dute hizkuntza hau erabiltzeko arazorik, baina bat baino gehiago dira erdara gutxi erabiltzen dutela eta gero zailtasunak izaten dituztela diotenak. Hauen ustez, gehiago landu behar litzateke.

1.3.8. Euskara

1.3.8.1. Euskararen ezagupen mailaren eboluzioa



2001ean euskaldun alfabetatuak ez ziren %80a iristen. Erdaldunen portzentaia %5a baino baxuagoa zen.



Alkizako herritarren gehiengoak euskara du ama-hizkuntza eta etxean euskaraz egiten du. Ama-hizkuntza erdara dutenen, etxean erdaraz egiten dutenen eta etxean bi hizkuntzak erabiltzen dituztenen portzentaia antzekoak dira, %5 ingurukoak. Euskararen erabilera Tolosaldean, Gipuzkoan eta EAEn baino altuagoa da

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK
1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA	
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Nahikoa elizkizun dituzte. Ez da jende gehiegi biltzen elizan eta gehienak adinduak izaten dira. ▪ Meza ondoren tertulian geratzeko ohitura dute, emakumeak taberna batean eta gizonak bestean. Batzuentzat, etxetik atera eta ezagunekin biltzeko aitzakia ere bada meza. ▪ Eliza berritzea herritarrek bultzatutako ekimena izan omen zen. Batik bat emakumeak antolatu omen ziren horretarako. 	<p>batezbeste eta gainera, ordena horretan bertan, geroz eta baxuagoa da erabilera hori.</p> <p>1.3.9. <u>Erljioa</u></p> <p>1.3.9.1. Elizkizun zerbitzuak</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Meza igande goizetan izaten da. ▪ Haurrentzako katekesia ematen dute herriko zenbait emakumek. ▪ Garbiketak egiteko herriko emakumeen artean taldeak osatzen dituzte. <p>1.3.9.2. Elizaren ondarea</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ San Martin de Tours parrokia ▪ Santiago Ermita ▪ Barnetegi guztia da elizaren ondarea, udalarena den lehen solairua izan ezik. Barnetegiko, zati bat, apaizaren erabilerarako gordeta dago. Bigarren pisua eta ganbara aldiz, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari alokatzen zaio.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ekipamendu aldetik osatuta daudela uste dute gehienek. Parkea (berritu berria), plaza, gazteek erabiltzen duten kultur-etxeke gela, ikus-entzunezko gela ere badena... aipatu dira. Hala ere, norbaiten ustez ez dago azpiegitura nahikoa. ▪ Gaztetxoak erabiltzen duten kultur-etxeke gelarekin oso gustura daude. ▪ Herritar batzuk elkarte gastronomiko baten beharra ikusten dute. Beste batzuk ordea, herrian hiru taberna egonda, ez dela beharrezkoa diote. ▪ Zenbaiten ustetan, adinduentzako lokal edo egoitza bat falta da herrian, zaharrei etxetik atera ahal izateko aitzakia eskaintzeko. Besteren batek berriz, ez daki horrelako leku bat prestatuta hara joateko ohiturarik hartuko ote luketen. 	<p>1.3.10. <u>Aisia</u></p> <p>1.3.10.1. Aisialdirako ekipamendu zerrenda</p> <ul style="list-style-type: none"> - Jolas parkea. - Frontoia. - Kultur-etxea: liburutegia, Kzgunea, ikus-entzunezko gela (gela hau, gazteek bilgune gisa erabiltzen da beste zenbait ekintzen artean), balioanitzeko gela. <p>1.3.10.2. Haur, gazte eta adinduen aisialdirako jarduerak</p> <p>Herrian ez dauden ekipamenduen bila, batez ere, kirol ekipamendu eta musika eskolari lotutakoak, herritarrak kanpora joatean sortzen diren arazoak bideratu nahian dabil udala.</p> <p>Herritarren eskura dauden aisialdiko hainbat ekintza, Jarduera soziokulturalen atalean zerrendatu dira. Horietaz gain, ondokoak aipatu behar dira:</p>

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK
1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA	
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Herriko tabernetan jendea biltzen da baina prestatutako ekintzetan jende gutxi parte hartzen du. ▪ Herriko Eskolan dabiltzan haurrentzako badaude aktibitateak, baina Billabonan dabiltzanentzako ez. Zaila da 12-16 urte bitartekoentzako aktibitateak prestatzea, gutxi direlako. ▪ Azken hauetako batzuk Musika Eskolara joaten dira Billabonara. Udala Loatzo Musika Mankomunitatean barneratua ez dagoenez, kuota altuagoak ordaindu behar izaten dituzte. ▪ ELKARTE GASTRONOMIKO BATEN BEHARRAREN INGURUAN, EZ DA ADOSTASUNIK LORTU. ELKARTEA, GASTRONOMIKOA IZAN BEHARREAN, HERRI ELKARTEA IZAN DADILA PROPOSATZEN DA, HERRITAR GUZTIEI IREKIA, ETA ERABILERA ANITZETAKO GELA BATEKIN. HALA ERE, SUKALDEA KUOTA ORDAINTZEN DUTENEK SOILIK ERABILTZEA PROPOSATZEN DA. ▪ PRESTATZEN DIREN EKINTZETAN PERTSONA GUTXIK PARTE HARTZEN DUTENAREN GAINEAN, EZ DA ADOSTASUNIK LORTU, EKINTZETAN PERTSONA GUTXIK PARTE HARTU ARREN, BIZTANLEEN PORTZENTAIA HANDIA DELA ADIERAZTEN BAITA. ▪ VILLABONA-AMASAKO MUSIKA ESKOLARA JOATEKO KUOTA ALTUEI BURUZ, EZ DA ADOSTASUNIK LORTU. IRTENBIDE EGOKIENA EZ LITZATEKE UDALA LOATZO MUSIKA MANKOMUNITATEAN INTEGRATZEA, HORRELA BERTARA JOAN NAHI DUTENEK KUOTA BAXUAGOAK ORDAINTZEKO, PERTSONA BAKOITZAK IKASKETA DESBERDINAK EGIN NAHI BAITITU. UDALAK DIRULAGUNTZAK EMATEKO DEIALDI IREKI BAT EGIN LEZAKE, ETA BAKOITZAK BERE ESKARIAK AURKEZTU 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Gaztetxoek asteburuetan ikus-entzunezko aretoaren inguruan biltzen dira, euren kontura nahi dituzten filmak ikusteko. ▪ Helduagoak direnak tabernetan bildu ohi dira. Batik bat Otsamendira jotzen dute, baita Ostatura ere. ▪ Aiztondo Mankomunitateak adinduentzako zenbait egun-pasa antolatzen ditu urtean zehar (Zumarragako Santa Luziko feria ikustera...). Intentzioa, hilero adinduentzat irteera bat antolatzea iristea izango litzateke.

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK
1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA	
<p>DITZALA.</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ 12-16 URTE BITARTEKOENTZAT EKINTZEN GABEZIA ETA ADINDUAK BILTZEKO GELAREN BEHARRA, EZ DIRA ARAZO MODUAN IKUSI. ▪ HERRI TXIKIETAKO BIZTANLEEK, HERRI HANDIETAKO EK BEZALAKO ZERGAZK ORDAINDU ARREN, EKIPAMENDU BERDINAK EZ DITUZTELA AIPATZEN DA. 	
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Tabernetan herritarrak biltzen dira, baina batzuen ustez lehen baino gutxiago. Hala ere ohitura batzuk mantentzen dira: larunbatetako gizonen afaria, gazteak irten aurretik herriko ostatuan biltzea, meza ondoreneko tertuliak... ▪ Gehienek ustez herriko giroa ona eta lasaia da, iskanbila handirik gabea. Herria gutxi politizatua izateak eragina omen du horretan. Beste zenbaiten ustez ordea, ez dago girorik, ez dago jendea bilduko duen ekintza edo liderrik. ▪ Auzolanean aritzeko ohitura galdu egin da. ▪ LEHENTASUNEZKO ARAZO MODUAN IKUSTEN DA, AUZOLANEKO OHITURAREN GALERA. HAU BULTZATZEKO, BIDE GARBIKETAK AUZOLANEAN BURUTZEA PROPOSATZEN DA. ▪ TABERNETAN BILTZEKO OHITURAREN GALERA EZ DA ARAZO MODUAN IKUSTEN. 	<p>1.3.11. Herri giroa</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Herritarrek badute elkartzeko ohitura, batez ere tabernetan. ▪ Elkarte gastronomikorik ez dago.
<p>Interpretazioa</p> <p>Alkizako Balizko Arkeologi Gune bezala sailkatuta dauden baserri, baseliza, errota eta kobazuloez gain, Itxuraingo tumuluak eta Ernioko Estazio Megalitikoak osatzen dute Alkizako kultur-ondarea. Elkarrizketatuek berriz, arkeologiaz gain, horma zaharrak eta karobiak aipatu dituzte. Orokorrean, ez omen dago kultur-ondarearen inguruko kontzientziarik herrian.</p> <p>Kultur-ekipamendua nahikoa delakoan daude herritarrak eta jarduera soziokulturalen eboluzioarekiko baikorrak dira, orain aktibitate ugari eskaintzen direlako. Hala ere parte hartzea nahiko mugatua da eta gehienetan pertsona berdinak izaten dira parte hartzen dutenak. Ekintzetan pertsona gutxi parte hartu arren, herritarren portzentaia altua suposatzen dutela adierazi da Herri Batzarrean eta, hortaz, partehartzea ez litzateke urria izango.</p>	

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA**DATU OBJEKTIBOAK****1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA**

Kirola egiteko dagoen instalazio bakarra frontoia dela kontuan izanik, berritze bat eskatzen du. Aerobica egiteko erabiltzen den kultur-etxeke gela ez da egokiena. Zenbait gazte inguruko gimnasio edo igerilekura joaten da, baina gehiago ordaindu behar izaten du. Aipaturiko hiru arazo hauek, berretsi egiten dira Herri Batzarrean, eta irtenbide bateratu bat eman beharko litzaiekeela uste da.

Alkizar gehienek ama-hizkuntza euskara da eta etxean ere gehienek euskara erabiltzen dute, baina zenbait herritarren ustez, jendea biltzen den lekuetan gaztelania gero eta gehiago entzuten da. Badira haurrek gaztelania gehiago landu behar luketela diotenak ere, zenbait kasutan arazoak izaten dituztelako hizkuntza hau erabiltzeko garaian.

Dituzten elizkizunekin (igande goizetako meza) ez dira kexatzen eta ospakizun horrek herritarren harremanetan duen onura azpimarratzen dute batzuk, meza ondoren tabernan biltzen direlako eta zenbaitentzat erdigunera agertzen diren asteko egun bakarra izaten delako.

Jolas-parkea, frontoia eta kultur-etxea ekipamendu nahikoa direla uste dute gehienek. Elkarrizketatu batzuk elkarte gastronomiko baten falta eta adinduentzako lokal edo egoitza baten beharra ikusten duten bitartean, Herri Batzarrean adinduentzat lokal baten beharrik ez dagoela uste da, eta dudak daude elkarte gastronomiko baten beharrik buruz, bai eta ipintzekotan, honek izan beharko lukeen funtzionamenduaren inguruan.

Billabonako ikastetxean dabilzanentzat ekintzarik ez da egiten herrian, baina ez da beharrik detektatu Herri Batzarrean. Gaztetxoak erabiltzen duten kultur-etxeke gelan gustura daude. Billabonako Musika Eskolan kuota altuagoa ordaindu behar izaten dute, udala ez dagoelako Loatzo Musika Mankomunitatean sartuta. Herri Batzarrean arazo moduan ikusi arren, ez da arazo larritzat ikusten eta tankera honetako ekintzak burutzeko inguruko herrietara joaten direnei zuzendutako dirulaguntza batzuk eman daitezen proposatzen da.

Herri giroa batik bat tabernen inguruan kokatzen da. Batzuen ustez herri giroa lasaia da eta beste batzuen ustez berriz, lasaiegia. Herri Batzarrean, tabernetan biltzeko ohituraren galera ez da arazo moduan ikusi. Auzolanaren ohitura galtzea arazo larria dela adostu da Herri Batzarrean.

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK
2. INGURUNE NATURALA	
2.1. Naturgune eta elementu natural babestuak	
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Inguruko paisaia ez omen da gehiegi aldatu azkeneko urteetan. Batzuen ustez pinudiak ugaritzea oso normala da, errentagarriak direlako, baina beste batzuk arriskutsua ikusten dute horrenbeste pinu sartzea, herrigunera eta etxeetara hurbiltzeraino, eta hori ekiditeko administrazioaren aldetik dirulaguntzak eskatzen dituzte ingurua txukun mantentzearen truke. ▪ Baserrien aktibitatea gutxitu den arren, askok ganadu minimo bat mantentzen dute soroak eta garbi edukitzeko. Horrek paisaiaren mantentzea ahalbideratu du. ▪ Nahiz eta baserritik ez bizi, askok ardiak edo bestelako abereak dituzte. Zenbaiten ustez, modu honetara lortzen da ingurua txukun mantentzea eta baserri-paisaiari eustea. Hala ere, arlo honetan baserritarren lanak duen garrantzia behar bezala baloratzen ez delakoan daude batzuk. ▪ Herriaren itxurari dagokionean, elkarrizketatu batzuen ustez herri polita eta txukuna daukate baina beste batzuk herriaren itxura eskasa dela diote, ez dela irizpide finkorik jarraitzen: herrigunean eraikitako etxe berri guztiak desberdinak diren bitartean, urbanizazio berriko bost bi bizitzako etxeak berdin-berdinak dira. ▪ Bakarren baten ustez, herrigunea autoek inbaditzen dute. ▪ BASERRIAREN GALERAREN ERAGINEZ, HERRIAREN PAISAIAN ETA NORTASUNEAN ERAGINAK IZATEA, ARAZO LARRITZAT IKUSTEN DA. LURSAILEN MANTENUA GEROZ ETA ZAILAGOA IZATEA ERE NEURRI BEREAN BALORATUA IZAN DA. 	<p>2.1.1. <u>Babestutako naturgune eta elementuen zerrenda. Kontserbaziorako arrazoiak</u></p> <p>■ ERNIO-GATZUME</p> <ul style="list-style-type: none"> - <u>Espazio-mota</u>: GKL (Garrantzi Komunitarioko Lekua) (ES2120008) - Natura 2000 Sarean arabera dituen interes komunitarioko habitatak: 10 (4 lehentasunezkoak) - <u>Azalera</u>: 2.166,1 Ha. - <u>Udalerriak</u>: Alkiza, Albiztur, Bidegoian, Errezil, Hernialde, Tolosa, Larraul eta Asteasu. - <u>Eskualdeak</u>: Tolosaldea eta Urola Kosta - Bertako <u>landareria</u>: <ul style="list-style-type: none"> ○ Bere gailurretan landareri berezia garatzen da: Kareharrizko harkaitzek mikrohabitats ezberdinak osatzen dituzte eta endemismo piriniar-kantabrikoak aurkitzen dira. ○ Amilburuen itzalean eta dolinen barruko freskotasunean, mendi-megaforbio deigarriak aurkitzen dira: <i>Valeriana pyrenaica</i>, <i>Acotinum vulparia</i>, ... ○ Gailurretan elurra desagertzean <i>Gentiana occidentalis</i> eta nartziso-espezie ezberdinak loratzen dira. ○ ... - Bertako <u>fauna</u>: <ul style="list-style-type: none"> ○ Gehien nabarmentzen dena mirotz urdina (<i>Circus pygargus</i>) da. ○ Belatzak. ○ Saiak. ○ Miru beltza (<i>Milvus migrans</i>). ○ Lepahoria. ○ Erbinudea. ○ Muxar grisa.

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK
2. INGURUNE NATURALA	
<ul style="list-style-type: none"> ▪ PINU LANDAKETAK HIRIGUNERA GERTURATZEN ARI DIRELA IKUSTEN DA, ETA NAHIZ ETA LEHENTASUN HANDIA EZ EMAN, NAHIKOA GARRANTZI DUEN GAIA DELA USTE DA. ▪ BASERRITARREI, GARBI MANTENTZEN DITUZTEN LURSAILETAN, METRO KARRATUKO DIRU LAGUNTZAK ESKAINTZEA PROPOSATZEN DA. ▪ PLAZAN AUTOEK DUTEN PRESENTZIA GUTXITU BEHARRA LEHENTASUN ERTAINEKO ARAZO MODUAN IKUSTEN DA. KONPONBIDEA AURKITU NAHIAN PLAZA AUTOEI IXTEA, BESTE APARKALEKU BAT EGITEA, ETA ANTZEKOAK PROPOSATU DIRA. ▪ HERRITARREK LEHENTASUN HANDIA EMATEN DIOTE HERRIAK ZENBAT ETA NOLA HAZI BEHAR DUEN EZTABAIDATZEARI. EZTABAIDA HONETAN ETXEBIZITZEN ITXURAREKIKO IRIZPIDEAK FINKATU BEHARKO LIRATEKEELA ERE USTE DA. 	<p style="text-align: center;">o ...</p> <p>Gune honen interesa Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan (LAAetan) jasotzen zen, Interes Naturalistikoa duten Eremuen Zerrenda Irekiaren baitan.</p> <p>Natura 2000 sarearen baitan dagoen Ernio-Gatzume espazioaren gehiengoa Oria ibaiaren arroaren barruan dago, eta bertako ibaiertzak lehentasunezko interes naturalistikoko guneen ertz izendatzen ditu behin-betiko onspena duen EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzekeo Lurraldearen Arloko Planak.</p> <p>Lurraldearen Arloko Plan (LAP) honen arabera, landaretza egoera onean dago Asteasu adarrean, Larraul eta Alkiza azpi-arro honen baitan daude (29 km²). Akuiferoen zaugarritasun altu edo oso altuko eremuak izendatzen ditu LAPak eta ez du berreskuratzeko premia duen ertzik identifikatu.</p> <p>Hirigintzaren ikuspuntutik, Asteasu erreka azpi-arroari dagozkion Alkizako lurrak, landa eremuko ertzak direla izendatzen ditu LAP honek.</p>
	<p>2.1.2. <u>Babes mota eta beronen garapen maila</u></p> <p>Ez dago daturik.</p>
2.2. Ondare naturala eta paisaia kontserbatzeko intereseko eremuak	
	<p>2.2.1. <u>Interesgarriak izan arren babestu gabe dauden eremuen zerrenda eta deskribapen laburra</u></p> <p>Ez dago daturik.</p>
2.3. Suteak	
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Elkarrizketatuek suteetarako ez daudela prestaturik uste dute, ez eta bestelako larrialdietarako ere. Horrelako kasuetan, elizako kanpaiak jotzen dira eta guztiak laguntzera gerturatzen dira. ▪ Sasi-erretzeetan suaren kontrola galtzea erraza da, are gehiago kasko inguruan, haize handia egiten baitu. ▪ SEGURTASUN NEURRI MODUAN, SAN 	<p>1994-2005 bitartean 3 baso sute izan dira herrian, hauetako bi sute nahita eragindakoak. Sute hauetan 9,3 baso Ha. erre dira. Baserriren bat ere erre da.</p>

HERRI TARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK
2. INGURUNE NATURALA	
JOAN SUA EGITEN DENEAN, TUTUAK UREZTATZE AHOAN JARRITA EGON BEHARKO LUKE	
Interpretazioa <p>Ingurune naturalari dagokionean sortzen den kezkarik nagusia baserrietako aktibitatearen beherakadak paisaiarengan izango duen eraginarena da. Arazo larri moduan ikusi da Herri Batzarrean baserriaren galerak paisaiarengan duen eragina. Pinu landaketei dagokionez, Herri Batzarrean landaketak hirigunera gerturatzen ari direla komentatu da, eta lehentasun handirik izan ez arren, nahikoa garrantzi duen gaia dela uste da. Baserritarrei ingurunearen mantenuan duten eragina ez omen zaie behar bezala baloratzen.</p> <p>Suteekiko herritarrak prestaturik ez daudenaren sentazioa dago. Sasiak erretzerakoan sortzen omen dira arriskuko egoerak.</p>	

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA**DATU OBJEKTIBOAK****3. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA****3.1. Errepide sarea**

- Elkarriketatu guztiak ados daude Asteasu aldeko errepidea oso gaizki dagoela. Batzuen ustez, zorua konpontzeaz gain, zenbait gunetan errepidea zabaldu ere egin beharko litzateke. Gehienek badute laster berrituko denaren berri.
- Bazterbide gabeko errepideak direnez, txirrindulari eta oinezkoentzako arriskutsuak dira. Hala ere, batik bat gatzetxoak, oinez etortzen dira auzoetatik herriguneraino askotan. Dena dela, oso istripu gutxi izan direla diote herritarrek.
- Elurte kasuetan ez da arazorik izaten, udaletxeko eta Gipuzkoako Foru Aldundiko palak pasatzen dituztelako. Udaletxeko palarekin baserrietako bideak ere garbitzen dituzte. Luizirik ez zaie sortu.
- Etxe berriak egin dituztenetik autoen ugaritzea nabaritu da, batik bat Anoeta aldeko errepidean.
- Batzuen ustez kaskoak ingurabide edo zirkunbalazioa behar luke, Asteasutik gatzela eskuin aldetik, herriguneko pasabidea oso estua delako. Autobusak oso larri ibiltzen omen dira.
- Bakarren baten ustez, kaskoa peatonalizatu behar litzateke, hurrekin arrisku handia sortzen delako bestela.
- **ASTEASURAKO BIDEAREN EGOERA ONARTEZINA ARAZO LARRIA DA. BIDEAREN EGOERAREN ARDURA, ALKIZAKO UDALAREN AZ GAIN, ASTEASUKOARENA ERE BADELA AIPATU DA.**
- **ERDIGUNEKO PASABIDEA ESTUEGIA IZAN ARREN, KONPONBIDE ZAILA DUELA AITORTZEN DA.**


3.1.1. Udalerriko egungo errepide sarea**3.1.1.1. Zerrenda eta deskribapen laburra**

Errepidea: GI-3630

- Anoetan sortzen da, Alkizaraino jo eta gero berriro Asteasu aldera jaisten da, han GI-2631 errepidearekin lotzen delarik.
- Alkiza herrigunetik eta Azaldegi auzotik igarotzen da.
- Luzera Alkiza barnean: **5,8 Km.**

Tartea	Neurketa puntua	IMD (Eguneko batez besteko intentsitatea)				
		1999	2000	2001	2002	2003
P.K. 0-9 Anoeta/Asteasu	Asteasu (Martxetandi baserria)	555	569	509	535	522
Ibilgailu motak*						
Motozikletak		Ibilgailu arinak		Ibilgailu astunak		
2%		89%		9%		

*2000 eta 2002 urteen arteko batez bestekoa



Badirudi azken urteetan eguneko batz besta igarotzen diren ibilgailuen kopuruak beherantz egin duela. Kontuan izan behar dugu ordea neurketa

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK
3. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA	
<ul style="list-style-type: none"> ▪ EZ DAGO ADOSTASUNIK ERREPIDEAK BAZTERBIDERIK EZ IZATEA ARAZO DEN ALA EZ ERABAKITZEKO, ETA GAINERA KONPONBIDE ZAILEKOA DELA ONARTZEN DA. 	<p>hauek Asteasun egindakoak direla, beraz Anoeta aldetik ibiltzen diren ibilgailu guztiak kontabilizatu gabe daudela.</p> <p>3.1.1.2. Errepide sarearen dentsitatea (Km/Km²)</p> <ul style="list-style-type: none"> - Errepide sarearen <u>luzera totala</u>: 5,8 Km - <u>Udalerrriaren azalera</u>: 12, 23 Km² <p>Datu hauek medio, Alkizako errepide sarearen dentsitatea 0,47 Km/Km² da.</p> <p>Dentsitate hau beste herri handiago batekin konparatuz gero:</p> <p>► <u>Tolosarekin</u></p> <p><u>Tolosako Errepide sarearen dentsitatea</u>:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Errepide sarearen <u>luzera totala</u>: 30 Km - Udalerrriaren <u>azalera</u>: 37,61 Km² - Dentsitatea 0,8 Km/Km² da <p>Ikusten dugu, Alkizako Errepide sarearen dentsitatea baxua dela beste herri handiagoekin konparatuz.</p>
	<p>3.1.2. <u>Errepide berriak egin edo egungoak hobetzeko proiektu/aurreikuspenak</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldetik Asteasutik herriguneraino datorren errepide zatia berritzeko konpromisoa lortu du. ▪ Ez da aurreikusten aurrekontuan bideen mantenurako partida espezifikorik. ▪ Gaur egun, 6 hilabetetarako eta lanaldi erdian teknikari bat kontratu du Udalak (INEM Corporaciones Localesen bidez, beraz Udalarentzako kostua nulua da). Teknikari hau herri bideen katalogo bat egiten ari da. ▪ Ez dago herri bideei buruzko ordenantzarik.
	<p>3.1.3. <u>Puntu beltzak, gune arriskutsuak</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Ez da puntu beltzik detektatu.

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA**DATU OBJEKTIBOAK****3. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA****3.2. Mugikortasunaren ezaugarriak**

- Oso ohituak daude autoarekin ibiltzen eta etxe guztietan dago gutxienez bat. Zenbaiten ustez, ibilgailua edukitzea behar-beharrezkoa da.
- Gaztetxoek, autorik ez dutenak oraindik, arazo gehien Billabonan izaten dituzten eskolaz-kanpoko aktibitateetatik itzultzeko eta asteburuetan festetatik bueltan etortzeko izaten dituzte.
- GAZTEEK VILLABONA-AMASATIK ETXERA BUELTATZEKO IZATEN DITUZTEN ARAZOAK, EZ DIRELA UDAL ARAZO MAILAN EZTABAIDATU BEHARREKOAK USTE DA.
- Orokorrean jendeak azkar gidatzen du eta hori arriskutsua da batik bat herrigunean, izan ere elizaren eta udaletxearen arteko pasabidean ez da ezer ikusten. Sinadura bilketa bat egin zen abiadura murrizteko neurriren bat hartzeko eta udaletxera eramanean zen gaia. Haurren segurtasuna bermatzeko zerbait egitea beharrezkoa dela diote batzuk.
- Zenbaitek diote autoaren erabileraren inguruan jendea hezi egin behar dela, izan ere gaztetxoak batik bat oso azkar ibiltzen dira.
- AUTOEN ABIADURA HANDIA DELA MEDIO SORTZEN DEN ARRISKUA, ARAZO LARRI GISA ADOSTU DA.

3.2.1. Ibilgailuak**3.2.1.1. Udalerriko ibilgailu kopuru totala**

- Ibilgailuak/familia edo ibilgailuak/1.000 biztanle. Konparaketa eskualdea eta Gipuzkoarekiko.

	2000	2001	2002	2003	2004
Turismoak	136	152	175	169	
Motorrak	11	14	13	11	
Bestelakoak	27	28	32	26	
GUZTIRA	174	194	220	206	
Iturria: Udala					

2000az geroztik ibilgailuen kopurua ugaritzen joan da, batik bat turismoen kopurua. Hala ere, 2002tik 2003ra 14 ibilgailutan gutxitu zen Alkizako ibilgailu kopurua. Biztanleriaren ugaritzearekin batera, auto kopurua ere handitzea logikoa da.

- Herrigunean abiadura murrizteko plana eskatu dio udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari, eta jada udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku utzi ditu honek eskaturiko datu guztiak.


3.2.1.2. Konparaketa eskualde/ Gipuzkoarekiko

IBILGAILU KOPURUA (2003)			
	Alkiza	Tolosaldea	Gipuzkoa
Turismoak	146	18.426	450.052
Motorrak	6	1.099	33.468
Besteak	64	6.213	92.503
Turismoak / 1000 biztanleko	553	415	668
Iturria: Eustat			

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA

DATU OBJEKTIBOAK

3. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA



Alkizan 1000 biztanleko turismo gehiago daude Tolosaldean eta EAEn batezbestekotan baino, baina Gipuzkoan baino gutxiago. Berdina gertatzen da familiako dauden turismoak kontuan hartuz gero.

- Elkarrizketatu batzuen ustez herrian ez dago aparkatzeko arazorik, plazan nahikoa leku dagoelako eta bazterbide gainean aparkatuta ere ez delako ezer gertatzen, baina beste batzuei jokabide hauek desegokiak iruditzen zaizkie. Plazan autoak sartzea arriskutsu bihurtzen da, haurrak han ibiltzen direlako eta gainera ez da oso atsegina herriko plaza autoz beteta ikustea. Zenbaiten iritziz, gutxienez asteburuetan plazan aparkatzea debekatu beharko litzateke.
- Hilerrri ondoan dagoen aparkalekua herritarrek ez dute erabiltzen. Ospakizunen bat dagoenean edo asteburuetan erabiltzen dute, ia beti kanpotarrek. Aparkaleku horretatik herriguneraino doan bidea pasealeku atsegin bilakatu behar dela uste dute batzuk bere erabilera bultzatzeko.
- Elkarrizketatu batzuk herriko kaskoa

3.2.2. Aparkalekuak

- Hilerrriaren ondoan dago Alkizako aparkaleku nagusi eta ia bakarra.
- Urbanizazio berriaren aurreko aldean 6 autoentzako aparkalekuak prestatu dira, horietako bat ezinduentzako.
- Perualdean egitera doazen etxeen aurrealdean ere zenbait aparkaleku egitea aurreikusita da.
- Plazan aparkatzeko aukera dago, nahiz eta zati bat autorik sartzen ez dena izan, bertan haurrak inolako arriskurik gabe jolas daitezten.

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK
3. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA	
<p>oinezkoentzat egokitzea nahi lukete.</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ PLAZAN AUTOEK DUTEN PRESENTZIA GUTXITU BEHARRA, ETA HERRIAN DEN APARKALEKUAREN ERABILERA KASKARRA LEHENTASUN ERTAINEKO ARAZOAK DIRA. LEHENARI KONPONBIDEA AURKITU NAHIAN PLAZA AUTOEI IXTEA, BESTE APARKALEKU BAT EGITEA, ETA ANTZEKOAK PROPOSATU DIRA. ▪ PROPOSAMEN GISA, ERDIGUNEAK OINEZKOENTZAT SOILIK IZAN BEHARKO LUKEELA, EDO ZEHarBIDE BAT EGIN BEHARKO LITZATEKEELA USTE DA. 	<div style="text-align: center;">  <p>Iturria: Eustat</p> </div> <p>Aparkaleku bakoitzeko turismo gutxiago dago Alkizan Tolosaldean, Gipuzkoan eta EAEn baino.</p>
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Elkarrizketatu guztiek diote garraio publikoa ez dela erabiltzen. Jendea oso ohitua dago ibilgailu pribatua erabiltzen. Batzuen ustez autobusaren ordutegia lan ordutegira moldatu beharko litzateke eta garraio publikoa potentziatu. Beste batzuk ordea garbi ikusten dute inork ez badu erabiltzen zaila dela zerbitzua mantentzea edo hobetzea. ▪ Azaldegia bailaran ez dago autobus zerbitzurik, autobusa Anoetatik etorri eta Anoetatik joaten delako. ▪ Elkarrizketatu batzuen ustez autobus txikiagoak erabili beharko litzateke, errepidean ere arrisku gutxiago sortuko bailukete. ▪ Oinez ibiltzeko errepide arriskutsuak dira, estuak direlako. Hala ere, zenbait gazte oinez etortzen da bere etxetik herriguneraino. ▪ Mendi bideak sasiz beteta omen daude eta ixten ari omen dira. Hala ere, herritarrek gero eta gehiago erabiltzen omen dituzte bide hauek. 	<p>3.2.3. Garraio publikoa</p> <p>3.2.3.1. Zerbitzuak</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ <u>TOLOSALDEA BUS</u> AUTOBUSAK <p>Kurtso osoan zehar 7:30ak eta 14:30ak inguruan dauden autobusak beti igarotzen dira, Tolosara doazen ikasleek erabiltzen baitituzte. Baina gainerako zerbitzuak izatekotan, aurrez telefonoz eskatu behar dira.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Alkiza-Tolosa <ul style="list-style-type: none"> - Astelehenetik ostiralera lanegunetan: <p style="text-align: center;">7:20- 7:50, 12:30-13:10,</p> <p style="text-align: center;">14:50- 15:30 17:15- 17:30,</p> - Urte osoko LARUNBATETAN, bai eta UZTAILA ETA ABUZTUko lan egunetan ere, autobusa etortzea nahi izanez gero aurreko egunetan deitu behar da autobus zerbitzura. <p style="text-align: center;">8:55-9:25, 11:45-12:10</p> • Tolosa-Alkiza <ul style="list-style-type: none"> - Astelehenetik ostiralera lanegunetan: <p style="text-align: center;">7:00- 7:20, 12:10-12:30,</p>

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA**DATU OBJEKTIBOAK****3. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA**

- GARRAIO PUBLIKOARI DAGOKIONEZ, ARAZO MODUAN IKUSTEN DA BI PERTSONENTZAT EMANDAKO ZERBITZUA 50ENTZAT BEZAIN BESTE ORDAINDU BEHARRA UDALAREN ALDETIK, ETA EZ GARRAIO PUBLIKOAREN GABEZIA.
- MENDIKO BIDEZIDORRAK SASIZ BETERIK EGOTEA ARAZOA DELA IKUSTEN DA, ETA BIDEAK GARBITZEKO, HERRITARREN ARTEAN ENPRESA BAT ERATZEA PROPOSATZEN DA.
- GARRAIO PUBLIKOAREN ORDUTEGIA LAN ORDUETARA EZ EGOKITZEA, ETA AZALDEGI BAILARAN AUTOBUS PUBLIKORIK EZ EGOTEA, EZ DIRA ARAZOTZAT IKUSI.

14:30- 14:50 16:30- 17:15,

- Urte osoko LARUNBATETAN, bai eta UZTAILA ETA ABUZTUko lan egunetan ere, autobusa etortzea nahi izanez gero aurreko egunean deitu behar da autobus zerbitzura:

8:40-8:55, 11:30-11:45

- Ondoko taulan Tolosaldea Bus konpainiak eskaintzen dituen zerbitzu ezberdinetako erabiltzaile kopuruaren eboluzioa jasotzen da:

Urtea	Bidaiariak
1996	281.499
1997	270.011
1998	231.371
1999	195.952
2000	195.190

Iturria: Gipuzkoako Bidaiarien Garraio Publikoko Sarearen Azterketa (2001)

Ikus daitekeenez 1996 eta 2000 urteen artean konpainia honek eskaintako zerbitzuetako erabiltzaile kopuruak %34 egin du behera.

3.2.3.2. Gabeziak

- Gipuzkoako Bidaiarien Garraio Publikoko Sarearen Azterketan adierazten denez Tolosaldearen ezaugarriek autobus bidezko garraio zerbitzu erregularraren errentagarritasun ekonomiko nabarmenki oztopatzen dute.

3.2.3.3. Aurreikuspenak/proiektuak

- Gipuzkoako Bidaiarien Garraio Publikoko Sarearen Azterketan Tolosaldeako eskualderako 4 lineadun autobus zerbitzu erregularra proposatzen da, zerbitzu hau tren zerbitzuarekin koordinatuz. Zerbitzu erregularrak ezartzea zaila den eremuetarako (aztergai ditugun landa eremuko herri txikiak kasu) eskariaren araberako zerbitzua eskaintzea proposatzen da, berriz.
- Eskariaren araberako zerbitzua eskaintzeko aukeretako bat egungo taxiekin zerbitzuon eskaintza

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK																				
3. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA																					
	<p>hitzartzea litzateke. Honela, Tolosaldearako proposatzen den eskariaren arabeko zerbitzua ondokoa litzateke:</p> <table border="1" style="width: 100%; border-collapse: collapse;"> <thead> <tr> <th colspan="4" style="background-color: #d3d3d3;">Eskariaren arabeko zerbitzua Tolosaldean</th> </tr> <tr> <th style="background-color: #d3d3d3;">Zerbitzua jasoko luketen udalerrriak</th> <th style="background-color: #d3d3d3;">Zerbitzuaren jatorria</th> <th style="background-color: #d3d3d3;">Egungo taxi lizentziak</th> <th style="background-color: #d3d3d3;">Zerbitzuaren destinoa</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>Zizurkil, Larraul</td> <td>Billabona-Zizurkil</td> <td>5</td> <td>Billabona</td> </tr> <tr> <td>Alkiza, Hernialde</td> <td>Tolosa</td> <td>19</td> <td>Anoeta-Tolosa</td> </tr> <tr> <td>Gaztelu, Leaburu, Belauntza, Oresa, Albiztur</td> <td>Tolosa-Ibarra</td> <td>20</td> <td>Tolosa</td> </tr> </tbody> </table> <p>Iturria: Gipuzkoako Bidaiarien Garraio Publikoko Sarearen Azterketa (2001)</p>	Eskariaren arabeko zerbitzua Tolosaldean				Zerbitzua jasoko luketen udalerrriak	Zerbitzuaren jatorria	Egungo taxi lizentziak	Zerbitzuaren destinoa	Zizurkil, Larraul	Billabona-Zizurkil	5	Billabona	Alkiza , Hernialde	Tolosa	19	Anoeta-Tolosa	Gaztelu, Leaburu, Belauntza, Oresa, Albiztur	Tolosa-Ibarra	20	Tolosa
Eskariaren arabeko zerbitzua Tolosaldean																					
Zerbitzua jasoko luketen udalerrriak	Zerbitzuaren jatorria	Egungo taxi lizentziak	Zerbitzuaren destinoa																		
Zizurkil, Larraul	Billabona-Zizurkil	5	Billabona																		
Alkiza , Hernialde	Tolosa	19	Anoeta-Tolosa																		
Gaztelu, Leaburu, Belauntza, Oresa, Albiztur	Tolosa-Ibarra	20	Tolosa																		
3.3. Irisgarritasuna																					
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Elurte kasuetan ez da arazorik izaten, udaletxeko eta Gipuzkoako Foru Aldundiko palak pasatzen dituztelako. Udaletxeko palarekin baserrietako bideak ere garbitzen dituzte. Luizirik ez zaie sortu izan. ▪ PROPOSAMENEN ARTEAN, ALKIZAKO ZERBITZUETARA IRISGARRITASUNA HOBETU BEHARKO LITZATEKEELA AIPATZEN DA. OZTOPO ARKITEKTONIKOAK KENDU BEHARKO LIRATEKE, UDALETXERA, KULTUR ETXERA, ETA ERAIKUNTZA BERRIETARA ERRAZ IRISTEA AHALBIDERATUZ. 	<p>3.3.1. <u>Ibilgailuen irisgarritasuna</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Udalak badu elurra kentzeko pala bat eta elurra egiten duenean aguazilak pasatzen du. Gatza ere botatzen dute herriko bideetan beharrezkoa denean. <p>3.3.2. <u>Pertsonen irisgarritasuna</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Udalaren iritiz agerian geratzen den arazo nagusia ekipamendu gehienetara iristeko eskailerak igo beharra da (udaletxe, kultur-etxe, eskola...). Hau dela medio, Irisgarritasun Plan bat beharrezkoa da, eta Don Juanena eraikinaren birgaitzean, igogailua ezartzeari lehentasuna emango zaio. 																				
<p>Interpretazioa</p> <p>Asteasu aldetik datorren errepidea egoera tamalgarrian aurkitzen da eta arazo larria dela adostu da Herri Batzarrean. Elkarrizketatu gehienek badakite Udala GFArekin akordio batera iritsi dela bide hori konpontzeko. Datuen arabera, 1999az geroztik errepide horretan dabiltzan ibilgailuen kopurua zerbait gutxitu da baina elkarrizketatuen ustez, Anoeta aldeko errepidean ibilgailuen ugaritzea nabaritu da, batik batik azken aldian, erdiguneko etxe berrietara bizilagunak etorri direnetik, hau da, biztanleria ugartu denetik.</p> <p>Autoan mugitzen dira herritarrak ia erabat, erdigunera oinez etortzen diren gaztetxo batzuk kenduta.</p>																					

HERRI TARREN DIAGNOSTIKOA**DATU OBJEKTIBOAK****3. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA**

Hori dela eta, familiako 1,75 auto daude Alkizan, Tolosaldean baino gehiago. Herri Batzarrean, arazo larri gisa baloratu da jendeak azkar gidatzea, arriskua sortzen baita plaza inguruan, bertan haurrak ibiltzen baitira. Puntu horretan pasabidea estua da eta honek konponbide zaila duela ikusi da Herri Batzarrean.

Erdigunean, plazan eta bazterbideetan aparkatzen da eta plazan autoek duten presentzia gutxitu behar dela adostu da Herri Batzarrean, bai eta, hilerri ondoko aparkalekuaren erabilera bultzatzea ere. Hala eta guztiz, gai hauek lehentasun ertainekoak direla ikusten da. Kaskoa oinezkoentzako egokitzea edo/eta ingurabide bat egitea proposatzen da.

Garraio publikoa ez da erabiltzen eta elkarriketatu batzuen ustez zaila da hobetzea erabiltzailerik ez badago. 1996tik 2000ra, Tolosaldea Bus konpainiaren erabiltzaileen kopuruak %34 egin du behera. Nahiz eta gabezia dela baieztatu, Herri Batzarrean ez da arazo moduan identifikatu, bai aldiz, 2 laguni zerbitzua ematea eta udalak 50 plazatako autobusaren zerbitzua ordaindu behar izatea. Herri Batzarrean ez dira arazo moduan ikusi garraio publikoaren ordutegiak lan orduetara ez egokitzea, eta Azaldegi bailaran autobus publikorik ez izatea. Mendiko bidezidorrak sasiz betetzea arazo dela adostu da Herri Batzarrean, eta konponbide moduan lan hauetarako herrian bertan enpresa bat sortzea proposatu da. Herri Batzarrean proposatu da udal zerbitzuak jasotzen dituzten eraikinen irisgarritasuna hobetzea (udaletxea, kultur etxea...)

Elurte kasuetan ez dute arazorik izaten, Udalak errepideak eta etxeetako bideak garbitzen dituelako. GFAk ere garbitzen ditu errepideak.

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK
4. INGURUMEN BEKTOREAK	
4.1. Ura	
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Gehienek sareko ura erabiltzen dute eta ez dute arazorik. Bakarren batek dio, kontadorea deposituan dagoenez, etxerainoko bidean izaten diren galerak ere berak ordaintzen dituela eta hori ez dela juxtua. 	<p>4.1.1. <u>Ur baliabideak</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Ondoko azpiegiturak dituzte: <ul style="list-style-type: none"> - Iturburu bat. - Depositu handi bat herriaren goiko aldean. - Ponpaketako depositu bat herriaren beheko aldean.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Kasu batzutan iturri propioa dute, batik bat depositutik urrun dauden etxeek, sareko urarekin arazoak izaten dituztelako. ▪ Gehienek iritziz ez da arazorik izaten urarekin eta egiten den kudeaketa egokia da. Matxurak konpontzeko egiten diren mozketen berri aurretik izaten dute. Zerbitzuarekin eta uraren kalitatearekin gustura daude gehienak, nahiz eta batzuentzat kloro zapora handia izaten duen askotan. ▪ Iturri propioa duten baserrietan normalean ez dute analisirik egiten. 	<p>4.1.2. <u>Ur hornidura</u></p> <p>4.1.2.1. Ura hartu eta tratatzeko instalazioak</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Ura zuzenean iturburutik hartzen da eta bi deposituetan kloratzen da. ▪ Uraren hornidura ez da erraza jakitea noizkoa den. Instalazioaren gehiengoa polietilenoazko hodiz osatua dago, nahiz eta zati bat, fundizioko hodiekin egina izan, ponpaketako presioa jasan ahal izateko. <p>4.1.2.2. Uren kalitatea</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Osasun Publikoko Tolosaldea-Goierri Eskualdeko Jardueri buruzko 2003 eta 2004ko txostenetan, Alkizako edateko ura edateko APROPOSA dela esaten da, baina kalitatea TXARRA dela agertzen da. Hau da, egindako analisisien %10a baino gehiagotan kalifikatu da kalitate txarrekoa. ▪ Udalak egunero kloro-maila neurtzen du eta hilabetean behin behintzat kanpoko enpresa batek ere analizatzen du ura (IZADI, Azpeitia).
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ur eskasiaren inguruan iritzi kontrajarriak daude: batzuen esanetan udan ez da izaten eskaririk eta beste batzuk baietz diote eta ezin dute ulertu igerilekua egiteko baimenak nola ematen diren. 	<p>4.1.3. <u>Ur kontsumoa</u></p> <p>4.1.3.1. Ur kontsumoaren eboluzioa urtez-urte</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Ur kontsumoaren eboluzioari buruzko daturik ez dago, izan ere, duela gutxi arte zinegotzi bat arduratzen zen kontadoreak irakurri eta etxez-etxe ordain-agiriak kobratzeaz. Urte horietako daturik ez dago. 2004tik aurrera ordea, kontsumoa informatizatu du udalak.


HERRI TARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK																								
4. INGURUMEN BEKTOREAK																									
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Zenbait etxek hobi septiko propioak dituzte. Kasuren batean, hobia apurtu eta bere horretan utzita dago eta bizilagunek usaina pairatu behar izaten dute. Udalak ba omen du gertaera honen berri baina ez omen du ezer egin. ▪ HOBIA SEPTIKOA BASERRIETARA ZABALTZEKO BEHARRA, ETA BERTAN, UKUILUKO URAK ETXEKO URETATIK BEREIZTU BEHARRA NABARMENTZEN DA. BESTALDE, HOBIA SEPTIKOEN KUDEAKETA ETA GARBIKETA EGOKIAK OTE DIRENEKO DUDA AZALERATZEN DA. 	<p>4.1.3.2. Ur kontsumoa sektoreka: Etxeetako kontsumoa, nekazaritza/abelazkuntzakoa, Udaletxekoa...</p> <table border="1" style="width: 100%; border-collapse: collapse; text-align: center;"> <thead> <tr> <th style="background-color: #cccccc;"></th> <th style="background-color: #cccccc;">2004/01*</th> <th style="background-color: #cccccc;">2004/02*</th> <th style="background-color: #cccccc;">2004 GUZTIRA</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>ETXEKO KONTSUMOA</td> <td>12.160</td> <td>19.805</td> <td>31.965</td> </tr> <tr> <td>INDUSTRIA KONTSUMOA</td> <td>1.018</td> <td>1.478</td> <td>2.496</td> </tr> <tr> <td>HERRITIK KANPORA</td> <td>4.439</td> <td>6.586</td> <td>11.025</td> </tr> <tr> <td>ORDAINDU BEHARRIK GABEKO KONTSUMOA</td> <td>91</td> <td>109</td> <td>200</td> </tr> <tr> <td>GUZTIRA</td> <td>17.708</td> <td>27.978</td> <td>45.686</td> </tr> </tbody> </table> <p>Iturria: Udala</p> <p>*: sei hilabeteak</p> <p>Aipatzekoa da urtearen bigarren sei hilabetean kontsumoa asko igo dela. Uraren gehiengoa etxeetan kontsumitzen da, kontuan izan behar da ia industriarik ez dagoela.</p> <p>4.1.3.3. Ur galerak</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Ez dago ur galerei buruzko daturik. <p>4.1.3.4. Ura aurrezteko udal neurriak</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Ez dago honelako neurririk martxan. <p>4.1.4. Saneamendua</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Herrigunearen azpiko aldean hobi septiko bakteriologiko bat dauka udalak. ▪ Herrigunean dagoen hobi septikoaren garbiketa udalak berak egiten du, noizean behin sortzen den lokatz zikina atereaz. Etxe partikularretako hobi septikoen garbiketari dagokionez berriz, bakoitza arduratzen da bere hobi septikoaren garbiketaz. ▪ Etxe berriek badituzte hobi septikoak. ▪ Baserri eta auzoetako hainbat etxek ez dute inolako saneamendu sistematik. Udalak, elkarren inguruan 		2004/01*	2004/02*	2004 GUZTIRA	ETXEKO KONTSUMOA	12.160	19.805	31.965	INDUSTRIA KONTSUMOA	1.018	1.478	2.496	HERRITIK KANPORA	4.439	6.586	11.025	ORDAINDU BEHARRIK GABEKO KONTSUMOA	91	109	200	GUZTIRA	17.708	27.978	45.686
	2004/01*	2004/02*	2004 GUZTIRA																						
ETXEKO KONTSUMOA	12.160	19.805	31.965																						
INDUSTRIA KONTSUMOA	1.018	1.478	2.496																						
HERRITIK KANPORA	4.439	6.586	11.025																						
ORDAINDU BEHARRIK GABEKO KONTSUMOA	91	109	200																						
GUZTIRA	17.708	27.978	45.686																						

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK																
4. INGURUMEN BEKTOREAK																	
<ul style="list-style-type: none"> AUZOKAKO HOBI SEPTIKO BATEN BEHARRA DAGO. 	<p>dauden baserrietan ur-zikinak garbitzeko sistema bateratu bat ezartzeko ikerketa bat egiteko asmoa du.</p>																
	<p>4.1.5. <u>Hornidura, saneamendua, eta uraren erabileraren udal kontrola (udalak zer kontrolatzen du)</u></p> <ul style="list-style-type: none"> Udala da uraren kudeaketako eskuduntza osoa duen organoa (Alkiza ez dago Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren baitan). 																
4.2. Energia																	
<ul style="list-style-type: none"> Elektrizitatea, gasa, gasolioa eta egurra aipatzen dira energi iturri moduan. Herrigunean dagoen gas deposituak hainbat etxe hornitzen ditu. Perualdeko urbanizazioa egiterakoan, etxe gehiago ere hornituko dira. Auzoetako etxe askok gas depositu propioak dituzte. Kasu batzutan, etxeak elkarren inguruan daudenez, gas depositu kolektiboak bultzatu beharko lirатеke batzuen ustez. SAN JOAN SUA EGITEN DEN TOKIAN DAGOEN FAROLA PIZTEA ERRAZTU BEHARKO LITZATEKE. 	<p>4.2.1. <u>Energia hornidura iturriak: elektrizitatea, gasa, energia berriztagarriak</u></p> <ul style="list-style-type: none"> GASA: gas propanoaren depositu bat dago herrian, frontoiaren atzeko aldean. Herriguneko zenbait etxe hornitzen ditu. Enpresa hornitzailea Repsolgas da. ELEKTRIZITATEA: Iberdrola da hornitzailea. ENERGIA BERRIZTAGARRIAK: Arana auzoan bada zentral hidroelektriko bat. Jabetza pribatukoa da eta jabeak, lortutako energia enpresa bati saltzen dio. Alkizan bada, kontsumo propiorako erabiltzen duen energia eguzki plaka bidez sortzen duen pertsona bat. Bestalde, udalak eraikin publikoetan eguzki plakak ezartzeko ikerketa bat egin nahi du. 																
	<p>4.2.2. <u>Udalerriko energia kontsumoa</u></p> <ul style="list-style-type: none"> GASA: gasaren kontsumoari buruz ditugun datu bakarrak, Herri Eskolarenak dira. <table border="1" style="margin-left: auto; margin-right: auto;"> <thead> <tr> <th></th> <th colspan="3">GAS KONTSUMOA (Kg)</th> </tr> <tr> <th></th> <th>2002</th> <th>2003</th> <th>2004</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>GUZTIRA</td> <td>2.371</td> <td>2.144</td> <td>3.045</td> </tr> <tr> <td colspan="4">Iturria: Udala</td> </tr> </tbody> </table> <ul style="list-style-type: none"> ELEKTRIZITATEA 		GAS KONTSUMOA (Kg)				2002	2003	2004	GUZTIRA	2.371	2.144	3.045	Iturria: Udala			
	GAS KONTSUMOA (Kg)																
	2002	2003	2004														
GUZTIRA	2.371	2.144	3.045														
Iturria: Udala																	

HERRI TARREN DIAGNOSTIKOA

DATU OBJEKTIBOAK

4. INGURUMEN BEKTOREAK



Datu hauen arabera zera ondoriozta dezakegu:

- Zerbitzu eta industria sektoreetako elektrizitate kontsumoak behera egin du 2000 eta 2002 urteen artean eta geroztik gorantz doa urtez urte.
- Etxebizitza sektoreko elektrizitate kontsumoa gorantz doa urtez urte.
- Energia kontsumo totalak gora egin du azken urteotan, kontsumorik altuena etxebizitza sektorekoa delarik.

- Energia berriztagarriek inbertsio handia suposatzen dutela uste dute, baina batzuk ez dute merkatuan eskaintzen diren posibilitate eta laguntzen berri, agian interesatuko litzaizkiekeen arren.

4.2.3. Energia berriztagarriak

- Lehen aipatu bezala, Arana auzoan bada zentral hidroelektriko bat. Jabetza pribatukoa da eta jabeak lortutako energia enpresa bati saltzen dio.
- Alkizan bada kontsumo propiorako erabiltzen duen energia, eguzki plaka bidez sortzen duen pertsona bat.
- Udalak eraikin publikoetan eguzki plakak ezartzeko ikerketa bat egin nahi du.
- Behin-betiko EAEko Energia Eolikoa Antolatze Lurralde Arloko Planaren (LAP) arabera, baldintza teknikoak eta ingurumenekoak kontutan izanik, parke eolikoak ipintzeko kokaleku gisa baztertzeko da Ernio.
- Aipaturiko LAP honen arabera, parke eolikoa, ahal bada, ez da Gatzumen kokatuko.

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA		DATU OBJEKTIBOAK																				
4. INGURUMEN BEKTOREAK																						
		Luzera Km	Haizea errotak	Potentzia MW	Produktzio garbia GWh/urte																	
		Gatzume	1,7	17	11,2	28,0																
		Iturria: EAEko Energia Eolikoa Antolatzeko Lurralde Arloko Plana																				
		4.2.4. <u>Energia aurrezteko udal neurriak</u>																				
		<ul style="list-style-type: none"> Ez dago mota honetako udal neurririk martxan. 																				
4.3. Hondakinak																						
<ul style="list-style-type: none"> Orain artean behintzat, batzuk zaborren tasa ordaindu gabe ateratzen zituzten zaborrak. Asteasuko bidegurutzetan dauden edukiontziak, Asteasuko udalarenak direnak, alkizar batzuk ere erabiltzen omen dituzte. 		4.3.1. <u>Hondakinen kudeaketarako organo eta enpresa eskudunak</u> <ul style="list-style-type: none"> Tolosaldeako Mankomunitatearen baitan dago Alkiza udalerrria. Birziklatzen ez diren hondakinen bilketa udaletxe bakoitzaren esku dago. Alkizan Galarraga enpresak jasotzen du zabor organikoa asteen bi aldiz (astelehenetan 8:00etan eta ostiraletan 9:00etan). Eskualdean 5 enpresa desberdin dabilta zabor hauek jasotzen, eta askotan zabor bilketa ez da herriaren eremuan soilik egiten. Adibide gisa Alkizako bilketa Berastegi eta Berrobi herrietako bilketarekin batera egiten da. Birziklatzen diren zaborrak Tolosaldeako Mankomunitateak kudeatzen ditu. 																				
<ul style="list-style-type: none"> Batzuk zabor organikoa, abereengana eta barazketara bideratzen dute. Beste batzuk produktuak ontzi handietan erosten saiatzen dira. Hondakinen ekoizpena ugaritzearen arrazoia, komertzioek gaiak saltzeko dauzkaten moduak direla uste du norbaitek. 		4.3.2. <u>Hondakinen sorkuntza</u> <p>4.3.2.1. <u>Hondakinen sorkuntzaren eboluzioa (kg/urte eta biztanleko). Alderaketa eskualdearekiko.</u></p> <div style="text-align: center;"> <p>Tolosaldeko Mankomunitatean sortutako Hiri Hondakinen bilakaera (kiloak/biztanleko/eguneko)</p> <table border="1"> <thead> <tr> <th>Urte</th> <th>Bilakaera (kg/biztanleko/eguneko)</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>1998</td> <td>0,998</td> </tr> <tr> <td>1999</td> <td>0,996</td> </tr> <tr> <td>2000</td> <td>1,105</td> </tr> <tr> <td>2001</td> <td>1,166</td> </tr> <tr> <td>2002</td> <td>1,119</td> </tr> <tr> <td>2003</td> <td>1,37</td> </tr> <tr> <td>2004</td> <td>1,2</td> </tr> </tbody> </table> <p>Iturria: Tolosaldeko Mankomunitatea</p> </div>			Urte	Bilakaera (kg/biztanleko/eguneko)	1998	0,998	1999	0,996	2000	1,105	2001	1,166	2002	1,119	2003	1,37	2004	1,2		
Urte	Bilakaera (kg/biztanleko/eguneko)																					
1998	0,998																					
1999	0,996																					
2000	1,105																					
2001	1,166																					
2002	1,119																					
2003	1,37																					
2004	1,2																					

HERRI TARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK
4. INGURUMEN BEKTOREAK	
	<p>Hondakinen sorkuntza handituz joan da. Kantitate altuenak 2003an sortutakoak dira.</p> <p>4.3.2.1. Hondakinak murrizteko udalaren neurriak</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Ez dago honelako udal neurririk martxan.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Lurpeko edukiontzien inguruan, denetariko iritziak daude: batzuen ustez aho txikiegia dute, poltsa handiak ezin dira bota; beste batzuk sortu litezkeen usainen beldur dira; zenbaitek nahiago ditu edukiontzi normalak; edukiontzi berriak gustatzen zaizkionik ere bada, txukunak eta garbiak iruditzen zaizkiolako; besteren bati, normalak edo lurpekoak, berdintsu dela iruditzen zaio. ▪ Kokaleku aldetik, herriko mugetan baino, etxeetatik gertuago egon behar luketela uste dute batzuk. ▪ Gehienen ustez, dauden edukiontziak nahikoa dira. Astean bitan izaten da bilketa, maiztasun horrekin gustura daude. Edukiontzi berriekin ere bilketen maiztasun hori mantentzea nahiko lukete. ▪ Lehen erosoagoa zen, batik bat herrigunetik kanpo bizi zirenentzat, zaborra etxe ondotik jasotzen baitzuten biltzaileek. Askok orain autoz joan beharko dute hondakinak botatzera, baina ez dira kexatzen. Pertsona adinduak hori egiteko nola moldatuko ote diren galdetzen duenik ere bada. ▪ Anoetako garbigunea oso eroso gelditzen zaie. 	<p>4.3.3. <u>Hondakinen kudeaketa</u></p> <p>4.3.3.1. Kudeaketa azpiegiturak herri zein eskualde mailan: edukiontziak, zabortegiak...</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ <u>Edukiontziak</u> <p>2005eko maiatzean jarri dira funtzionamenduan herrian lurpeko edukiontziak. Herrigunean kokatzen diren oihalarena eta pilenak edukiontzi normalak dira. Edukiontziak hiru taldetan daude kokatuta: herrigunean, errepide ondoan Anoetako mugan eta errepide ondoan Asteasuko mugan.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zabor organikoa: 3 edukiontzi - Beira: 2 edukiontzi (Tolosaldean 252) - Papera eta kartoia: edukiontzi 1 (Tolosaldean 200) - Ontziak: edukiontzi 1 (Tolosaldean 190) - Arropa: edukiontzi 1 (Tolosaldean 39) - Pilak: edukiontzi bat <ul style="list-style-type: none"> ▪ <u>Bestelako azpiegiturak</u> <p><u>Sasieta zabortegia:</u> birziklatzen ez diren hondakinak isurtzen dira bertan. Zabortegi hau Beasaingo mendebaldean kokatzen da, Salbatore auzoan. 1991an jarri zen abian eta bertan 3 mankomunitateetako hiri-hondakinak isurtzen dira (Sasieta, Debagoiena eta Tolosaldeako Mankomunitateetakoak), 185.000 biztanleri zerbitzua emanez.</p> <p><u>Anoetako garbigunea:</u> obra hondakinak, altzariak, plastikoak, kartoia, lerro txuri (etxetresnak), gris (tresna elektronikoak) eta marroiko (tresna elektrikoak) hondakinak jasotzen dira bertan. Lerro txuri, gris eta marroiko hondakinak eta kartoia birziklatu egiten dira eta gainontzeko hondakinak Sasieta zabortegira (altzariak) eta Cespa GR hondakin geldoen zabortegira</p>

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA

DATU OBJEKTIBOAK

4. INGURUMEN BEKTOREAK

- Gehienek birziklatzen dutela diote. Bakarren batek aitortu du orain arte ez zuela egiten, horretarako edukiontziak herrigunean bakarrik zeudelako, baina orain hasiko omen da birziklatzen. Gai honekin haurrak kontzientziatuta daudela uste dute.


(plastikoak eta obra hondakinak) eramaten dira.

Ontzien Sailkapen Planta: eskualdean jasotzen diren plastikozko, metalezko eta brik motako ontziak Legazpiko Ontzien Sailkapen Plantan sailkatzen dira ondoren, hainbat birziklatzaileri bidaltzen zaizkiolarik euren lan-prozesuetan lehengaitzat erabil ditzaten. Planta honek ondorengo mankomunitateei ematen die zerbitzua: Sasieta, Debagoiena, Deba Behea, Urola Erdia, Urola Kosta eta Tolosaldea (328.211 biztanle guztira).

Kamioiak:

- Edukiontzi soterratuak graduak kamioiekin jasotzen dira.
- Arropa, landare olio eta hondakin arriskutsuen bilketarako bi furgoneta erabiltzen dira.

4.3.3.2. Hondakin kategoria bakoitzaren bilketaren eboluzioa. Alderaketa eskualdearekiko. Bildutako hondakin norakoa




Bildutako hiri hondakin birziklagarrien kopurua urtez urte ugartu da; kopururik altuena papera eta kartoiarena da.


HERRI TARREN DIAGNOSTIKOA

DATU OBJEKTIBOAK

4. INGURUMEN BEKTOREAK



Alkizan azken 4 urteetan bildutako hiri hondakin birziklagarrien kopuruan ez da aldaketa nabarmenik egon. Aipatzekoa da Alkizan gehien birziklatzen diren hondakin mota beira dela. Herrian dauden hiru tabernek eragin zuzena dute horretan.



Azken urteetan zabortegira hondakin gutxiago eraman da eta gehiago birziklatu dira.

- 2004ean beste gai batzuen bilketa jarri da abian, jarraian adierazten diren kantitateak bildu direlarik Alkizan:

HERRI TARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK													
4. INGURUMEN BEKTOREAK														
	<table border="1"> <thead> <tr> <th data-bbox="730 344 1054 394">GAIA</th> <th data-bbox="1054 344 1378 394">Kantitatea</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td data-bbox="730 394 1054 443">Landare olioa</td> <td data-bbox="1054 394 1378 443">63 litro</td> </tr> <tr> <td data-bbox="730 443 1054 492">Motoretako olioa</td> <td data-bbox="1054 443 1378 492">0 litro</td> </tr> <tr> <td data-bbox="730 492 1054 589">Bateriak, pinturak, pilak...</td> <td data-bbox="1054 492 1378 589">70 unitate</td> </tr> <tr> <td data-bbox="730 589 1054 638">Arropa</td> <td data-bbox="1054 589 1378 638">184 kilo</td> </tr> <tr> <td colspan="2" data-bbox="730 638 1378 687">Iturria: Tolosaldeko Mankomunitatea</td> </tr> </tbody> </table>	GAIA	Kantitatea	Landare olioa	63 litro	Motoretako olioa	0 litro	Bateriak, pinturak, pilak...	70 unitate	Arropa	184 kilo	Iturria: Tolosaldeko Mankomunitatea		<p>4.3.3.3. Nekazaritzari lotutako hondakinen bilketa eta kudeaketarako ekintzak</p> <p>Hilean behin baserritarrei deialdia egiten zaie silo bola plastikoak ohiko lekuetara ateratzeko.</p>
GAIA	Kantitatea													
Landare olioa	63 litro													
Motoretako olioa	0 litro													
Bateriak, pinturak, pilak...	70 unitate													
Arropa	184 kilo													
Iturria: Tolosaldeko Mankomunitatea														
		<p>4.3.4. <u>Informazio eta komunikazio kanpainak</u></p> <p>Udalak Alkizan ipinitako edukiontzi berriei buruzko informazio-triptiko batzuk egin ahal izateko diru laguntza eskatu du.</p> <p>Jarraian Tolosaldea mailan burutu diren kanpainak zerrendatzen dira, kanpainon nondik norakoak azalduz:</p> <ul style="list-style-type: none"> - <u>Landare olioa eta hondakin arriskutsuen bilketa zerbitzua</u>: kanpaina hau eskualde osoan burutu zen 2004ean. Triptiko bat banatu zen, bertan bilketen eguna, bildu beharreko hondakinak eta informazioa orokorra jasotzen zelarik. - <u>Garbigunea</u>: eskualde osoan eman zen kanpaina hau 2003 urtean eta Garbigunearen funtzioak eta erabilera bultzatzea izan zuen helburu. Beronen bidez Garbigunea zer eta zertarako den azaldu zen. - <u>Merkataritza eta enpresetako kartoi bilketa</u>: 2004ean burutu zen kanpaina eskualde osoan. - <u>Zaborren inguruan kanpaina orokorra</u>: eskualde osoko kanpaina izan zen, 2003-2004 urteetan zehar burututakoa. Kanpaina hauek eskualde mailakoak izan dira, herri handienetan landu direlarik batik bat. 												
		<p>4.3.5. <u>Kontrolik gabeko isurpen puntuen identifikazioa</u></p> <p>Garbigunetik 200 metrotara, hau da, Anoetarako bide bazterrean presa zaharreko kurban, garbigunera bota ezin daitezkeen zenbait gauza botatzen dira, esaterako,</p>												

HERRI TARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK
4. INGURUMEN BEKTOREAK	
	uralita.
<p>Interpretazioa</p> <p>Sareko uraren inguruan dagoen kexa bakarra kontadorearen kokalekuaren inguruko kexa puntual bat da. Bestelakoan elkarrizketatuek ez dute arazorik sumatzen. Hala ere, uraren kalitateari buruzko emaitzak ez dira onak, ura edangarria den arren.</p> <p>Ur-kontsumoaren eboluzioari buruzko daturik ez dago, 2004tik aurrera hasi da Udala datu hauek erregistratzen.</p> <p>Gehienen ustez ur-eskasiarik ez da izaten Alkizan baina batzuk ez dute begi onez ikusten Udalak igerilekuak egiteko baimenak ematea. Aipatzekoa da Anoeta eta Asteasuri ura saltzen diola Alkizak.</p> <p>Ur-galerei buruzko inongo daturik ez dago.</p> <p>Saneamendua herrigunean hobi septiko baten bidez egiten da, bai eta barreatutako zenbait etxetan ere. Baina beste etxe eta baserri batzuetan, ez dute inolako saneamendu sistemarik, eta beharko litzateke. Hobi septikoa baserrietara zabaltzeko beharra, eta bertan, ukuiluko urak etxeko uretatik bereiztu beharra nabarmentzen da Herri Batzarrean. Hobi septikoen kudeaketa eta garbiketa egokiak ote direneko duda azaleratzen dira. Baserrietako hobi septikoaz gain, auzokako hobi septiko baten beharra sumatu da Herri Batzarrean.</p> <p>Elektrizitatea, gasa, gasolioa eta egurra dira energia iturri nagusiak. Barreatutako etxe askok gas depositu propioak dituzte, batzuen ustez depositu kolektiboak bultzatu behar lirateke. Elektrizitate kontsumo totalak gora egin du azken urteotan, kontsumorik altuena etxebizitza sektorekoa da.</p> <p>Orain arte zabor organikoaren bilketa edukiontzirik gabe egiten zen, atez-ate. Orain lurpeko edukiontzia jarri dira hondakin mota guztientzako. Denetariko iritziak daude edukiontzi hauen inguruan: aho txikia dutela, usainak sortu litezkeela, egokiak direla... Herriko mugetan baino, etxeetatik hurbilago kokatu beharko lirateke batzuen ustez.</p> <p>Edukiontzi berriak direla eta, jende gehiagok birziklatzea espero da, lehen horretarako edukiontzia herrigunean bakarrik zeudelako. Alkizan gehien birziklatzen dena beira da, gero papera eta kartoia eta azkenik ontziak, neurri askoz txikiagoan. 2004an landare olio, bateriak, pinturak, pilak eta arropa ere jaso dira. Garbigunetik 200 metrora Anoeta bidean, bada garbigunera bota ez daitezkeen hondakinak pilatzen diren kontrolik gabeko puntu bat.</p>	

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA

DATU OBJEKTIBOAK

5. JARDUERA EKONOMIKOEN ERAGINA (BIZI KALITATEAN ETA INGURUMENEAN)

5.1. Baso ustiapenak


- Pinudiak nagusitu dira azken urteetan, nahiz eta batzuen ustez soroak eta zelaiak oraindik mantendu diren. Orokorrean, etxe inguruko sailetan ardiak jartzen omen dira eta urrutikoetan pinuak. Batzuetan arazoak sortzen dira ordea, baten urruneko lursailak besteen gertukoak direlako.
- Ekonomikoki dituen abantailengatik landatzen da pinua. Baten hitzetan, dirulaguntzak pinuak sartzeko bakarrik ematen dituzte.
- Urbanizazio berrirako bideak herri inguruan pinu gehiago sartzeko bidea irekiko duela uste duenik ere bada.
- PINU LANDAKETAK HIRIGUNERA GERTURATZEN ARI DIRELA IKUSTEN DA, ETA NAHIZ ETA LEHENTASUN HANDIRIK EZ EMAN, NAHIKOA GARRANTZI DUEN GAIA DELA USTE DA.

5.1.1. Baso zoruaren azalera eta urteroko aprobetxamendua (m³)

Behin-behineko onespina duen EAEko Nekazaritza eta Basogintza Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak (LAP), Lur Ez Urbanizagarrietako nekazaritza eta basogintza erabilerak arautzen ditu. Alkizako lurren banaketa modu honetan burutzen da LAP honetan:

Azalera (m ²)	
Basoa-Mendi Urria	919.477,59
Basoa	7.435.438,91
Etxe-lurra; industrial; ekipamendua eta azpiegiturak	74.555,36
Ingurumen Hobekuntza	13.741,06
Larre Menditarra-Harkaitzak	35.962,17
Larre Menditarra	252.667,0
Nekazaritza-abeltzaintza eremua: Balio Estrategiko Altua	3.347.057,87
Nekazaritza-abeltzaintza eremua: Trantsiziozko Landa Paisaia	919.477,59
Iturria: Behin-behineko onespina duen EAEko Nekazaritza eta Basogintza Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana	

Udalerriko azaleraren banaketa (1996)




Iturria: EAEko baso inbentarioa (1996)


HERRITARREN DIAGNOSTIKOA

DATU OBJEKTIBOAK

5. JARDUERA EKONOMIKOEN ERAGINA (BIZI KALITATEAN ETA INGURUMENEAN)



Ikusten den bezala, Alkizako baso proportzioa, eskualdekoa eta probintziakoa baino handiagoa da.



Alkizan hostozabalek betetzen duten azalera Gipuzkoakoa baino askoz altuagoa da portzentaian.

Baso mozketak (1995-2005eko martxoa)		
ZUHAITZ MOTA	m ³	Ha.
Koniferoak	7.671,62	19,95
Hostozabalak	889,9	16,37
GUZTIRA	8.561,52	36,32

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia

HERRI TARREN DIAGNOSTIKOA**DATU OBJEKTIBOAK****5. JARDUERA EKONOMIKOEN ERAGINA (BIZI KALITATEAN ETA INGURUMENEAN)**


Ikus daitekeenez baso mozketetan ateratako egur bolumenari dagokionean koniferoak dira nagusi; 1995 eta 2005ko maitatza artean burututako baso mozketetan atera den egurraren %89,6 koniferoei dagokie, hostozabalek egur bolumen totalaren %10,4 osatzen duten bitartean.

Moztutako azalerei begiratuz ordea ez dira horrelako desberdintasunak nabari bi zuhaitz mota hauen artean: moztutako azalera totalaren %54,9 hostozabalei dagokio eta %45,1 koniferoei. Hostozabal eta koniferoen hektarea bakoitzeko lortzen diren egur bolumenaren diferentzia, gehienbat hostozabaletan bakanketak edo oin soilen mozketak egiten direlako izaten dira, koniferoen kasuan soiltzeak egiten diren artean.

Basoberritzeak (1997-2004)		
Ha. guztira	Koniferoak %	Hostozabalak %
30,23	88,9	11,1

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia

1997az geroztik egindako baso berritzeen joera nagusia koniferoak sartzearena izan da Alkizan.



1997az geroztik 2000. urtean basoberritu ziren Ha gehien. Orduz geroztik, basoberritutako Ha. kopurua jaisten joan da.

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK
5. JARDUERA EKONOMIKOEN ERAGINA (BIZI KALITATEAN ETA INGURUMENEAN)	
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ustiapen lanetan zarata sortzen da, batez ere motozerrena. Normalizat jotzen da. Kamioiek hondatzen dituzten bideak, konpondu arazi egiten omen dizkie Udalak, beraz ez omen da arazorik izaten. ▪ BASO LANDAKETEN ERAGINEZ BIDEAK APURTZEA, EZ DA ARAZO LARRITZAT IKUSTEN. ▪ EZ DA ARAZO GISA IKUSTEN, BASO LANETARA DATOZEN MAKINEK SORTZEN DUTEN ZARATA. 	<p>5.1.2. <u>Eraginaren deskribapen kualitatiboa</u></p> <p>Basogintzak inpaktu esanguratsuak sor ditzake:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Lurzoruaren higadura. Fenomeno hau areagotu egiten da landaketa berriak direla eta hondeamakinak erabiltzen direnean. ▪ Baso pistak irekitzeak, hainbat eragin sor ditzake: <ul style="list-style-type: none"> - baso eremuen ezabatzea - gainazaleko isurketa fluxu handien sorkuntza - lurzoruaren trinkotzea - higadura ▪ Foru Aldundiko araudiak finkatutako basogintza distantzia minimoak ez betetzeak eragin hauek ekar ditzake: <ul style="list-style-type: none"> - baso suteekiko zaurgarritasuna areagotzea - herritar, lur-jabe eta abarren arteko liskarrak ▪ Basoetako izurrien gaineko kontrolarentzat tratamendu biologiko-kimiko integratuak burutzeak (baso eremuak hegazkin bidez fumigatzea...) kalteak eragin ditzake modu selektiboan ez bada jokatzen <p>Eragin positibo hauek ekar ditzake baso jarduerak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Negutegi efektuaren aurkako eragin positiboa ▪ Higaduraren aurkako eraginkortasuna, zuhaitzek lurrari eutsi egiten baitiote ▪ Ura lurrera iragazten laguntzea ▪ Uholdeetan uraren abiadura geldiaraztea ▪ Gertuko inguruetan mikroklima atsegina sortzea, neguan izoztetik babestuz, udan itzala emanez, eta haizea baretuz ▪ Zaratatik babesa ▪ Biodibertsitatea areagotzea
	<p>5.1.3. <u>Baso suteak</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ 1994-2005 bitartean 3 baso sute izan dira herrian, hauetako bi sute nahita eragindakoa. Sute hauetan 9,3 baso Ha. erre dira.


HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK																														
5. JARDUERA EKONOMIKOEN ERAGINA (BIZI KALITATEAN ETA INGURUMENEAN)																															
	<p>5.1.4. <u>Zertifikatutako baso ustiapenen existentzia. Hektareak</u></p> <ul style="list-style-type: none"> Alkizan ez dago zertifikatutako baso ustiapena duen jabegorik. 																														
	<p>5.1.5. <u>Basogintza jardueren eragin positiboak, herri inguru, paisai edota nortasunean</u></p> <ul style="list-style-type: none"> Negutegi efektuaren aurkako eragin positiboa. Higaduraren aurkako eraginkortasuna, izan ere lurrari eutsi egiten diote. (nahiz eta baso mozketak egitean justu aurkakoa gertatu). Uholdeetan uraren abiaduraren geldiaraztea. 																														
5.2. Nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak																															
<ul style="list-style-type: none"> Nekazaritza eta abeltzaintza orokorrean, eta baserriak eta bertan lan egiteko moduak, herriaren nortasunaren zati garrantzitsu direla garbi daukate batzuk. Argi ikusten da paisaiarengan eragina duela eta eragin hori positiboa dela. Etorkizunean, baserriko aktibitatearen beherakada ikusita, paisaiaren mantenua nola egingo denaren kezka badu zenbaitek. Lurjabeei sortzen ari zaien arazoetako bat mugarriena omen da: gero eta gehiago dira terreneen mugarriak aurkitzen ez dituzten lurjabeak eta urteak aurrera doazen heinean, arazoa areagotzen ari omen da. BASERRIAREN GALERAREN ERAGINEZ, HERRIAREN PAISAIA ETA NORTASUNEAN ERAGINAK IZATEA, ARAZO LARRITZAT IKUSTEN DA. LURSAILEN MANTENUA GEROZ ETA ZAILAGOA IZATEA ERE NEURRI BEREAN BALORATUA IZAN DA. BASERRITARREI, GARBI MANTENTZEN DITUZTEN LURSAILETAN, METRO KARRATUKO DIRU LAGUNTZAK ESKAINTZEA PROPOSATZEN DA, KONPONBIDE GISA. 	<p>5.2.1. <u>Ustiategiak</u></p> <div data-bbox="715 1014 1396 1603" style="border: 1px solid black; padding: 5px;"> <p style="text-align: center;">Ustiategien azalera (1989-1999)</p> <table border="1" style="margin-top: 10px;"> <caption>Ustiategien azalera (1989-1999) (Hektarea)</caption> <thead> <tr> <th>Urteak</th> <th>Guztira</th> <th>Aziendadunak</th> <th>Lurgabeak</th> <th>Lur landuak</th> <th>Bestelako lurrak</th> <th>Lurdunak</th> <th>Azienda gabeak</th> <th>ENAdunak</th> <th>Larre iraunkorretarako lurrak</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>1989</td> <td>950</td> <td>750</td> <td>200</td> <td>50</td> <td>400</td> <td>950</td> <td>200</td> <td>550</td> <td>500</td> </tr> <tr> <td>1999</td> <td>950</td> <td>750</td> <td>200</td> <td>50</td> <td>500</td> <td>950</td> <td>150</td> <td>450</td> <td>400</td> </tr> </tbody> </table> <p>Iturria: Eustat</p> </div> <p>Ustiategien azalera txikiagotu egin da. Zertxobait handitu diren lurrak aziendadunak eta "bestelako lurrak" bezala sailkatuta agertzen direnak izan dira.</p>	Urteak	Guztira	Aziendadunak	Lurgabeak	Lur landuak	Bestelako lurrak	Lurdunak	Azienda gabeak	ENAdunak	Larre iraunkorretarako lurrak	1989	950	750	200	50	400	950	200	550	500	1999	950	750	200	50	500	950	150	450	400
Urteak	Guztira	Aziendadunak	Lurgabeak	Lur landuak	Bestelako lurrak	Lurdunak	Azienda gabeak	ENAdunak	Larre iraunkorretarako lurrak																						
1989	950	750	200	50	400	950	200	550	500																						
1999	950	750	200	50	500	950	150	450	400																						

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA

DATU OBJEKTIBOAK

5. JARDUERA EKONOMIKOEN ERAGINA (BIZI KALITATEAN ETA INGURUMENEAN)

- LURSAILEN MUGARRIAK EZ TOPATZEA EZ DA ARAZO LARRITZAT BALORATZEN.



Ustiatgien kopurua zertxobait handitu da, 2 ustiategi gehiago zeuden 1999an. Hala ere, lur motaren araberako portzentaiak ez dira gehiegi aldatu.

Aurreko bi grafiko hauei begiratuta, eta datu berrienak 1999koak direla kontuan izanda, urte horretan oraindik ez zen nabaritu ustiatgien aktibitatearen beherakada nabarmenik.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2000ko datuen arabera, Alkizan 53 ustiategi zeuden eta 2004ko abenduko datuen arabera 56. Beraz, 1989-99 epean Eustateko datuek ustialekuen kopurua zertxobait jaitsi dela diote, eta 2000-04 epean Gipuzkoako Foru Aldundiko datuen arabera zertxobait igo da.

Lurraren erabilera	Ha	%	Baseri Kop.	% ¹
Bazka-laborantza	279,7	39,58	42	75
Barazkiak	0,7	0,1	4	7,14
Loreak	0	0	0	0
Fruta-arbolak	6,94	0,98	16	28,57
Beste landaketa batzuk	4,07	0,57	6	10,71
Basoak	352,9	49,93	51	91,07
Sastrakak, lur ez-emankorrak	62,4	8,83	27	48,21
GUZTIRA	706,7	100	-	-

¹: Ustiategi guztiekiko gai hauetan lan egiten duten ustiategiak.

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia 2004ko abendua

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK															
5. JARDUERA EKONOMIKOEN ERAGINA (BIZI KALITATEAN ETA INGURUMENEAN)																
	<table border="1"> <thead> <tr> <th>Abereak</th> <th>Baserri kop.</th> <th>%</th> <th>Buru kop.</th> <th>Buru/Baserri</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>Ardiak</td> <td>17</td> <td>32,07</td> <td>1.076</td> <td>63,29</td> </tr> <tr> <td>Behiak</td> <td>26</td> <td>49,06</td> <td>481</td> <td>18,5</td> </tr> </tbody> </table> <p>Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia 2004ko abendua</p> <p>Gipuzkoako Foru Aldundiko 2000 eta 2003ko datuak erabiliz ondokoa ondoriozta daiteke: Urteko Marjina Gordin Osoa 10.000 €tik gorakoa duten 13 ustiategi daude Alkizan, eta hauetatik, 11 ustiagitako baserritarrak dira Nekazaritza Gizarte Segurantzaren altan emanda daudenak. 13 ustiategi hauen titularretatik, 50 urtetik gorako titularra duten ustiategiak 11 dira, eta emakumezko titularra dutenak berriz, 2.</p>	Abereak	Baserri kop.	%	Buru kop.	Buru/Baserri	Ardiak	17	32,07	1.076	63,29	Behiak	26	49,06	481	18,5
Abereak	Baserri kop.	%	Buru kop.	Buru/Baserri												
Ardiak	17	32,07	1.076	63,29												
Behiak	26	49,06	481	18,5												
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Kexak minden gaiari lotutakoak dira: pixa zabaltzen dutenean sortzen de usaina da arazoa. Batzuen ustez praktika hori ez litzateke ohikoa izan behar. Alkizan jaiotakoen ustez, kexatzen direnak kanpotik datozenak omen dira. Ez omen dira konturatzen baserri-herri batera etorri direla bizitzera. Dena dela, asko dira sektore honek eragin txarri ez diela sortzen esaten dutenak. ▪ MINDEN USAINA ARAZOA IZAN ARREN, EZ DA ARAZO LARRITZAT IKUSTEN. 	<p>5.2.2. <u>Eraginaren deskribapen kualitatiboa</u></p> <p><u>Nekazal jarduerekin</u> lotutako ingurumen eraginik esanguratsuenak:</p> <ul style="list-style-type: none"> → Nekazal jardueretan erabiltzen diren produktu batzuk hautsa, gas igorpenak, ... sor ditzakete. → Produktu kimikoak (pestizidak, ongarririk,...) modu intentsibo eta desegokian erabiltzeak lurpeko urak kutsa ditzake. → Nekazaritzako hondakinak (edukiontzia, plastikoak, ...) modu egokian kudeatzea beharrezkoa da. → Urak, agente natural bezala, landaredia gabe geratu den zoru biluziarengan higadura eragin dezake → Higadura edota nekazal jardura desegokiek lurzorua egitura eta propietate fisiko-kimikoak eralda ditzakete. <p><u>Abelazkuntzarekin</u> lotutako ingurumen eraginik esanguratsuenak:</p> <ul style="list-style-type: none"> → Abeltegi edo ustiategi intentsiboetako hondakinen hartidura dela eta kiratsa sor daiteke. → Abelazkuntzako hondakinak ongarririk bezala modu desegokian erabiltzeak lurzoria eta lurpeko uren kutsadura eragin dezake <p>Eragin positibo hauek ekar ditzakete <u>nekazaritza eta</u></p>															

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK
5. JARDUERA EKONOMIKOEN ERAGINA (BIZI KALITATEAN ETA INGURUMENEAN)	
	<p><u>abeltzaintza</u> jarduerak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Bertako paisaia eta nortasuna mantentzen laguntzen dute. ▪ Herritik gertuen dauden lursailetan erabilera hauek mantenduz gero, lurrak garbi eta txukun mantentzea. ▪ Nekazaritza eta abeltzaintzan erabiltzen diren lursailen ertzetako harresiek, landare-hesiek eta zuhaitz bakanek biodibertsitatearen babesean, higaduraren aurka, uholdeen aurka, haizetik babesten, itzala ematen... laguntzen dute. ▪ Nekazaritza eta abeltzaintza zentzudunari esker, ingurumena hondatu gabe, osasunari dagozkion arauak betetzen dituzten elikagai osasungarriak ekoizten dira. ▪ Nekazaritza eta abeltzaintzari esker, lur-sailak garbi mantentzen dira, eta honek, sute arriskua gutxitzen du.
	<p>5.2.3. <u>Nekazaritza/abeltzaintza ekologikoko ustiategien existentzia</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Nekazaritza ekologikoko ekoizlea bakar bat dago Alkizan. BIOLUREko bazkide. Baina kontsumo pertsonalerako soilik produzitzen du, hau da ez ditu produktuak saltzen, horregatik ez dago profesional moduan alta emanda Eusko Jaurlaritzako kontseiluan.
5.3. Industria	
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Herrian oso industria gutxi dago. Modelistaren tailerrak zarata ateratzen du baina ez dira kexatzen. ▪ HERRIAN IA LANTEGIRIK EDO INDUSTRIARIK EZ IZATEA ARAZO LARRIA DA. 	<p>5.3.1 <u>Enpresa nagusiak</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Baldosas Jarri. - Soaitz zorrozketak. - Erniope modelook. <p>Alkiza garapen txikikotzat baloratu da behin-betiko onespena duen EAeko Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren arabera, gainbehera ekonomikoan edota demografikoan dauden zonetan ekintza dinamizatzaile eta sustatzaileak programatzeko komenigarritasuna aipatzen delarik.</p> <p>Lurraldearen Arloko Plan honen arabera, Alkizan ez da</p>

HERRI TARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK
5. JARDUERA EKONOMIKOEN ERAGINA (BIZI KALITATEAN ETA INGURUMENEAN)	
	<p>aurreikusten merkataritza ekipamendu handirik ezartzea, gehienez 15.000m² azalera garbia eta 5000m²ko sabai-azalera duen eraikina, ipintzea izango litzateke posible.</p>
	<p>5.3.2 <u>Eraginaren deskribapen kualitatiboa (zaratak, usainak...)</u></p> <p>Industria jarduerak ingurumenean izan dezaketen eragina:</p> <ul style="list-style-type: none"> → Baliabide naturalen kontsumoa (lurzorua, ura, energia eta gainontzeko lehengai eta gai osagarriak) → Hondakinak (ur zikinak, zarata. igorpenak...)
	<p>5.3.3 <u>Zertifikatutako enpresak (kalitatea, ingurumena)</u></p> <p>Alkizan ez dago zertifikaziorik daukan enpresarik.</p>
	<p>5.3.4 <u>Jarduera Lizentzien tramitazio egoera</u></p> <p>Ez dago daturik.</p>
	<p>5.3.5 <u>Kexa eta salaketak</u></p> <p>Ez dago daturik.</p>
5.4. Zerbitzuak	
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Elkarrizketatuen ustez, Alkizak bisitari gehien asteburuetan jasotzen ditu. Asko mendira abiatzen dira bertatik, Ernio aldera, nahiz eta lehen mendizale gehiago ibiltzen zen. Beste batzuk herriko jatetxeetara gerturatzen dira eta plaza inguruan eta frontoian ibiltzen dira. ▪ Bisitariak ere plazan aparkatzen dute eta herria autoz betetzen da astebukaeretan. ▪ PLAZAN AUTOEK DUTEN PRESENTZIA GUTXITU BEHAR DA. KONPONBIDEA AURKITU NAHIAN PLAZA AUTOEI IXTEA, BESTE APARKALEKU BAT EGITEA, ETA ANTZEKOAK PROPOSATU DIRA. 	<p>5.4.1 <u>Hezkuntza jarduerak/Ostalaritza/Turismo egitura</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Herriko Ostatua. - Elizegi Taberna. - Otsamendi Jatetxea. - Lete Nekazalturismoa. - Dendarik ez dago. - Kutxazain automatikorik ez dago. <p>Udala ondokoak lantzen ari da:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Herriko mapa. - Herri bideen eta kultur ondarearen katalogoa. - Airetik hartutako bideoa. - Herriko web. orrian informazioa sartzen ari dira. - Tolosaldea Tourrek ibilbide seinaleztatuen

HERRI TARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK
5. JARDUERA EKONOMIKOEN ERAGINA (BIZI KALITATEAN ETA INGURUMENEAN)	
	<p style="text-align: center;">triptikoa ateratzen ditu...</p> <p>2004ko Tolosaldeko Turismo Plan Estrategiari dagokionez, baliabide historiko kultural moduan aipatzen da Alkizako eliza, eta baliabide naturalak eta aisialdikoei dagokienez, Ernio ageri da. Tolosaldeko Turismo Plan Estrategiko honen arabera, Alkizan, 2 nekazalturismo eta 16 plaza daude guztira. Tolosaldeako datuak kontutan hartuta establezimenduen % 6,7 daude Alkizan, eta plaza portzentaia % 3,3koa da.</p>
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Zenbait bisitarik eliza ikusi nahi izaten dute. Giltzak herriko taberna batean egoten dira eta inori utzi baino lehen, apaizari telefonoz baimena eskatzen diote, bestela arazoak sortu daitezkeelako. ▪ Ez da beharrezkoa ikusten bisitari gehiago erakartzeko azpiegiturak sortzea. Batzuen ustez, jada nahikoa jende etortzen da. Beste batzuei gustatuko litzaieke zerbait sortzea (museotxoren bat, interpretazio zentronen bat...) baina zaila ikusten dute horrelako azpiegitura bat mantendu ahal izatea. Zenbaiten ustez, bisitaren perfila zein den ikusita, horrelako ekimenek ez lukete arrakastarik izango. Badira nahikoa zerbitzu eskaintzen direla diotenak ere. Batzuen ustez, herriari buruzko publikazioak eta mapak falta dira. ▪ Barnetegiak eta bertara etortzen diren haurrek herriari bizi ematen diete. ▪ Udaberritik aurrera, inguruko herrietako eskoletatik egun-pasan etortzen dira haurrak autobusetan. Herrigunean ibiltzen dira baina herritarren bat inoiz kexatu da bere zelaian sartu direlako. 	<p>5.4.2 <u>Jardueren eraginaren deskribapen kualitatiboa</u></p> <p>Zerbitzu jarduerak ingurumenean izan dezaketen eragina:</p> <ul style="list-style-type: none"> → Baliabide naturalen kontsumoa (lurzorua, ura, energia eta gainontzeko lehengai eta gai osagarriak) → Hondakinak (ur zikinak, zarata. igorpenak...)
5.5. Lurzoru poluituak	
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Lehen edozein lekutan agertzen omen zen zaborra botata baina garbigunea egin zenetik ohiturak aldatu direla dirudi. Hala ere, garbigunea txikia geratzen ari omen da. Beste batzuen ustez ordea, jendeak oraindik hondakinak zuloetan botatzen 	<p>5.5.1 <u>Potentzialki poluitutako lurzoruen identifikazioa eta leheneratze jardueren existentzia</u></p> <p>Ihoberen potentzialki poluitutako lurzoruen zatalagoan ez da agertzen Alkizako lursailik.</p>

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK
5. JARDUERA EKONOMIKOEN ERAGINA (BIZI KALITATEAN ETA INGURUMENEAN)	
jarraitzen du, bai eta errepide ondoko punturen batean ere (Anoeta aldeko zatian, erreka zuloan).	
<p>Interpretazioa</p> <p>Alkizako azalera totaletik, %62,9 baso zoruari dagokio, Tolosaldeakoa eta Gipuzkoakoa baino proportzioa altuagoa. Elkarrizketatuen ustez pinudiak nagusitu dira azken urteetan, baina datuen arabera, Alkizako basoen %75 hostozabalek osatzen dute, Gipuzkoan batezbeste %40ra iristen ez direlarik. 1997tik 2004ra egin diren baso berritzeen % 88,9 koniferoekin egin da. Hala ere, aipatzekoa da baso berriren hektareak, 2000. urteaz geroztik gutxitzen joan direla. Pinudiak etxeetara eta erdigunera hurbiltzea arazo moduan ikusi da Herri Batzarrean, lehentasun handirik eman ez zaion arren. Ustiapen lanetan sortzen diren eragin negatiboak ez zaie garrantzi gehiegirik ematen herritarren aldetik.</p> <p>Baserriak eta bertako aktibitateak herriaren nortasunaren zati garrantzitsu direla garbi dago. Argi ikusten da paisaiarengan eragin positiboa dutela aktibitate hauek, eta euren beherakadak paisaiarengan suposatuko duen aldaketak arazo larri moduan ikusi dira Herri Batzarrean. Datuek diotenaren arabera, 1989tik hona ez da aldaketa nabarmenik egon Alkizako baserrietan, ustialekuen kopurua eta azalera berdintsu mantendu baitira. Aldaketa nagusia 1989tik 1999ra 100 bat hektarea larre galdu direla da, eta datu hau bat dator baserriaren paisaiaren galerari buruz herritarrek azaltzen duten kezkarik. Kontutan izan behar da nekazaritza aktibitate ekonomiko nagusia duten baserriak identifikatzeko balio duen datu nagusietako bat gizarte segurantzako afiliazioa dela, eta Alkizan baserri guztieko %20an soilik ematen da hau. Hortaz, esan genezake nekazaritza bizi direnak dozena bat baserri edo direla soilik. Beraz, baserri gehienetan baserriko lanak ez dira helburu ekonomikoarekin egiten, lurrak kudeatzeko modu bezala baizik. Hau da, Alkizan lehen sektorea funtzio ekonomikoa galtzen ari da, eta bizilekuaren inguruak mantentzeko funtzioa betetzen hasi da. Izan ere, herritar batzuk proposatzen dute larreak garbi mantentzearen truke dirulaguntzak eman daitezela. Honen aurrean, gogoan izan behar da lursailak garbi eta egoera onean mantentzeko praktikarik egokiena eta merkeena, etekin ekonomikoa bilatzen duenaren kudeaketa dela. Azkenik, inguruko beste herri batzuekin konparatuz, Alkizan ardiak dituzten ustialekuak gutxiago dira, herriak izan duen esnetarako behien kultura mantentzen dela adierazten duena, sektore hori krisialdian egon arren. Mugarrien kokalekuen ahaztea, lurjabe batzuentzat arazoa izan arren, ez da oso larritzat baloratu Herri Batzarrean.</p> <p>Minden usaina arazo moduan ikusi arren, ez da lehentasunezko arazoa Herri Batzarrean adostu denaren arabera. Elkarrizketatu batzuen ustez, kanpotik etorritakoak kexatzen dira, ez direlako konturatu baserri-herri batera etorri direla. Nekazaritza ekologikoko ekoizle bakar bat dago Alkizan eta kontsumo pertsonalerako soilik produzitzen du.</p> <p>Herrian industria gutxi dago eta hau arazo larritzat adostu da Herri Batzarrean. Honen inguruan pabiloirik eraiki gabe bultzatu beharko litzatekeen alorra dela uste da. Modelistaren tailerreko zarata inguruko etxeetara iritsi arren ez dira kexatzen.</p> <p>Herrira gerturatzen diren bisitariak mendira, plazara edo/eta jatetxeetara datoz. Plazan aparkatzen dute gehienek, Herri Batzarrean adostu da plazan autoek duten presentzia gutxitu behar dela. Bisitari gehiago erakartzeko azpiegiturak sortu eta mantentzea zaila ikusten da. Elkarrizketatu batzuen ustez herriari buruzko publikazio eta mapak falta dira eta udala gai hauek lantzen ari da.</p>	

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK
6. ARRISKUEN ANALISI ETA KUDEAKETA	
6.1. Udalerrri mailako Larrialdi Planak	
<ul style="list-style-type: none"> ▪ SEGURTASUN NEURRI MODUAN, SAN JOAN SUA EGITEN DENEAN, TUTUAK UREZTATZE AHOAN JARRITA EGON BEHARKO LUKEELA ADIERAZI DA. 	<p>6.1.1. <u>Larrialdi planen existentziaren egiaztapena eta deskribapen laburra</u></p> <p>Udalak badu irrati bat, "SOS Deiak"-ekin zuzenean konektatua.</p>
6.2. Udal azpiegitura eta instalazioetarako Larrialdi Planak	
	<p>6.2.1. <u>Larrialdi planen existentziaren egiaztapena eta deskribapen laburra</u></p> <p>Ez dago udal azpiegitura eta instalazioetarako larrialdi planik</p>
<p>Interpretazioa</p> <p>Alkizan ez dago ez udalerrri mailako ez udal azpiegitura eta instalazioetarako larrialdi planik.</p>	

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA		DATU OBJEKTIBOAK	
7. KOMUNIKAZIO, SENTSIBILIZAZIOA, ETA PARTE-HARTZEA			
7.1. Komunikabideak			
		7.1.1. <u>Udalerri mailakoak: Komunikabide zerrenda, tirada, audientziak</u>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ OILATEGITIK ALDIZKARIA
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Gehienek "Tolosaldeako Hitza" irakurtzen omen dute. 		7.1.2. <u>Eskualde mailakoak: Komunikabide zerrenda, tirada, audientziak</u>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ TOLOSALDEAKO HITZA: 7.500 ale ▪ GALTZAUNDI: 5.000 ale
7.2. Komunikazioa Udaletxetik			
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Batzuen iritziz, informazio iturri nagusia ahoz-ahokoa da udaletxeko berri izateko garaian. Alkate eta zinegotzien bidez izaten da berri-emate hori askotan. 		7.2.1. <u>Udalak erabiltzen dituen komunikazio kanalak: bandoak, komunikabideak</u>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Udalak bandoak eta tabloia erabiltzen ditu informazioa zabaltzeko. ▪ Plenoak irekiak dira.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Zenbait informazio buzoneatu egiten dira, baina buzoietara gauza asko iristen direnez, askotan ez dira guztiak irakurtzen. Bandoak ere erabiltzen dira. ▪ Udaletxe azpiko paneletan informazio asko jartzen du udalak batzuen ustez. Beste batzuen hitzetan, plenoetako gai-zerrendarik ez da aurrez publikatzen eta zenbait erabakiren berri ere ez zaie ematen herritarrei. ▪ Zenbaiten ustez herritarrek ez dute izaten udala lantzen ari den gauzei buruzko informaziorik eta gehiago jasotzea gustatuko litzaieke. Beste batzuk, nahikoa informazio jasotzen dutela diote. 		7.2.2. <u>Udal batzordeak: batzorde irekien existentzia, batzordeen arteko komunikazioa...</u>	<p>Udaleko batzorde informatzaileak ondorengoak dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Hirigintza, Obrak, Ingurugiroa eta Zerbitzuak. - Osasuna, Gizarte Zerbitzuak eta Langabezia. - Kultura. - Heziketa eta Euskara. - Jaiak eta Kirolak. - Ogasuna eta Kontu Orokorrak. - Nekazaritza eta Mendiak.
7.3. Komunikazioa Udaletxearekin			
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Zerbait behar dutenean, herritarrak udaletxera edo zuzenean alkatearengana edo zinegotziren batengana jotzen dute. Batzuen ustez, herritarrek egindako eskaerak erantzuten dira udaletxetik, baina beste batzuk ezezkoan daude. 		<ul style="list-style-type: none"> ▪ Herritarrak gai konkretuen inguruan deitzen dira bileretara: etxebizitzak eraiki behar direnean, festak antolatzekeo... 	

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK
7. KOMUNIKAZIO, SENTSIBILIZAZIOA, ETA PARTE-HARTZEA	
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Herritarrek ez dute plenoetara agertzeko ohiturarik. Bakarren batek adierazi du gaitzerrenda aurretik ez dela argitaratzen eta ondorioz, zaila dela jakitea interesgarriak zaizkien gaiei buruz arituko diren edo ez . ▪ Askotan, jendeak ez ditu kexak eta zalantzak udaletxean agertzen, tabernan baizik. ▪ Zenbaiten ustez, udala eta herritarren artean komunikazioa falta da. 	
7.4. Heziketa aktibitateak	
	<p>7.4.1. <u>Udaletxeak edo Udalaz gaindiko entitateen batek sustatutako kanpainak eta ekimenak</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Aurten lehenengo aldiz Eusko Jaurlearitzako Gazteria Sailak antolatutako auzolandegiak egingo dira herrian. Erreka garbitu eta karobiak txukunduko dituzte gazteek eta kultur-etxean egingo dute lo.
7.5. Udalerriko elkarte sarea	
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Batzuen ustez, herrian elkarte ezberdinek funtzionatzen dute eta giro nahiko aktiboa dago. Beste batzuen ustez, ez da horrela. ▪ Elkarte gastronomikoa nahi dute batzuk, baina besteek normala ikusten dute horrelakorik ez izatea hiru taberna dauden herrian. ▪ ELKARTE GASTRONOMIKO BATEN BEHARRAREN INGURUAN, EZ DA ADOSTASUNIK LORTU. ELKARTEA, GASTRONOMIKOA IZAN BEHARREAN, HERRI ELKARTEA IZAN DADILA PROPOSATZEN DA, HERRITAR GUZTIEI IREKIA, ETA ERABILERA ANITZETAKO GELA BATEKIN. HALA ERE, SUKALDEA, KUOTA ORDAINTZEN DUTENEK SOILIK ERABILTZEA PROPOSATZEN DA. 	<p>7.5.1. <u>Udalerriko elkarte zerrenda, mota, partaide kopurua adieraziz</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ EHIZA ELKARTEA: ehiza postuak prestatzeko eta zozketatzeko biltzen dira. Bertakoak eta kanpokoak dira bazkide. Otsamendi tabernan biltzen dira. ▪ ERNIOPE PILOTA ELKARTEA: pilotarako zaletasuna bada herrian eta elkarte honen bidez batik bat txikientzako pilota eskola antolatzen da. ▪ OILATEGITIK KULTUR ELKARTEA: urtean behin Oilategitik aldizkaria prestatu eta plazaratzeko eta zenbait kultur ekintza antolatzeko biltzen dira. Bilerak kultur-etxean egiten dituzte. Belarmendiko bulegoa erabiltzen dute lanerako. ▪ GURASO ELKARTEA: herriko eskolaren inguruan mugitzen dira.

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK
7. KOMUNIKAZIO, SENTSIBILIZAZIOA, ETA PARTE-HARTZEA	
	<p>7.5.2. <u>Herritarren partaidetza eredia</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Herritarrak gai konkretuei buruzko bileretara bakarrik deitzen dira: etxebizitzak, eskola... ▪ Festak antolatzekeo batzordean parte hartzen dute herritarrek.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ ARAZO LARRI MODUAN IKUSTEN DA, AUZOLANEKO OHITURAREN GALERA. HAU BULTZATZEKO, BIDE GARBIKETAK AUZOLANEAN BURUTZEA PROPOSATZEN DA. 	<p>7.5.3. <u>Parte hartzeko beste bide batzuk: auzolana, eliza, etab.</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Auzolanerako ohitura galdu egin da. Eliza garbitzerakoan mantentzen da, emakumeek taldetan antolatuta garbitzen dute txandaka.
<p>Interpretazioa</p> <p>Herritar askok "Tolosaldeako Hitza" jasotzen dute. Udalak bandoak eta buzoneoak erabiltzen ditu eta zenbait informazio panelean jartzen du baina batzuen ustez, ahoz-ahoz jasotzen da informazio gehiena. Herritar batzuk informazio gehiago izan nahiko lukete eskuragarri: plenoetako gai-zerrenda, Udala lantzen ari den gaiak...</p> <p>Elkarrizketatu gehienek, zerbait behar dutenean, zuzenean Udalera jotzen dute. Jasotzen duten erantzunaren inguruan iritzi ezberdinak daude. Askotan kexak eta zalantzak, udaletxean baino gehiago tabernetan agertzen omen dituzte batzuk. Zenbaiten ustez, komunikazioa falta da Udala eta herritarren artean.</p> <p>Batzuen ustez, herriko elkarteek ongi funtzionatzen dute eta giro nahiko aktiboa dago, beste batzuen ustez, ez. Elkarte gastronomiko baten beharraren, eta izatekotan, honen funtzionamenduaren inguruan iritzi desberdinak daude, Herri Batzarrean egiaztatu zenaren arabera. Auzolanean aritzeko ohitura ia erabat galtzea, arazo larri moduan ikusten da.</p>	

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK
8. UDAL INGURUMEN KUDEAKETA	
8.1. Ingurumenaren aldeko ekimenak (udalak garatutakoak zein udalaz gaindiko entitateen partaidetzak garatutakoak)	
	8.1.1. <u>Landa Eremuko jarduerari lotutakoak</u> Ez dago daturik.
	8.1.2. <u>Beste batzuk</u> Ez da horrelakorik egiten.
8.2. Udal ingurumen araudia, eta paisaiari buruzkoa	
	Ez dago gai hauei buruzko araudi berezirik.
8.3. Ingurumen edo/eta iraunkortasuneko irizpideak kontutan hartu direneko jarduerak	
	8.3.1. <u>Erosketa berdea</u> Ez dago daturik.
	8.3.2. <u>Kontratzioko plegu teknikoak</u> Udaletik ez da ingurumen kudeaketarik egiten eta ez da iraunkortasun irizpiderik erabiltzen ez erosketak egiteko garaian ez kontratzioko plegu teknikoetan ere.
Interpretazioa Udal ingurumen kudeaketa erabat lantzeke dago udaletxean.	

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK																				
9. UDALAREN ONDAREA																					
9.1. Eraikinak																					
	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Udaletxea: Eraikin honetan kokatzen dira herriko ostatua, alokatzen diren 3 etxebizitza, udal bulegoak eta buzoien gela. ▪ Barnetegiko lehen solairua: Bertan daude liburutegia eta Kzgunea, soinketa eta antzerkirako erabiltzen den gela handia, bai eta, ikus-entzunezko gela eta Belarmendik eta Oilategitik Kultur Elkarteak erabiltzen duten bulegoa ere. ▪ Don Juanena etxea: bitan banatutako bajera bat eta bi etxebizitza daude eraikinean. Udalak eraikina berritu eta bertan ekipamendu berriak jartzeko proiektua eskuartean darabil, batik bat, gizarte zerbitzuetako ekipamenduak (larrialdietarako pisua...) 																				
9.2. Hilerria																					
	Lurra erabat beteta zegoenez, duela 10 urte nitxoak egin ziren, eta oraindik hauetan badago lekua. Hala eta guztiz, nitxo gehiago egiteko lekua ere bada oraindik.																				
9.3. Lursailak																					
	<p>Udalaren jabetzakoak diren 20 partzela daude Alkizan.</p> <table border="1" style="width: 100%; border-collapse: collapse;"> <thead> <tr> <th style="background-color: #d3d3d3;">Landaketa mota</th> <th style="background-color: #d3d3d3;">Ha kopurua</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>Pinudia</td> <td style="text-align: center;">3,3940</td> </tr> <tr> <td>Txarak (monte bajo)</td> <td style="text-align: center;">2,4304</td> </tr> <tr> <td>Hostozabalen basoak</td> <td style="text-align: center;">30,4377</td> </tr> <tr> <td>Sastraka</td> <td style="text-align: center;">6,4758</td> </tr> <tr> <td>Zituak, zerealak</td> <td style="text-align: center;">0,2912</td> </tr> <tr> <td>Belardiak</td> <td style="text-align: center;">0,0859</td> </tr> <tr> <td>Emangaitzak</td> <td style="text-align: center;">0,0430</td> </tr> <tr> <td>GUZTIRA</td> <td style="text-align: center;">43,1580</td> </tr> <tr> <td colspan="2">Iturria: Katastroa</td> </tr> </tbody> </table>	Landaketa mota	Ha kopurua	Pinudia	3,3940	Txarak (monte bajo)	2,4304	Hostozabalen basoak	30,4377	Sastraka	6,4758	Zituak, zerealak	0,2912	Belardiak	0,0859	Emangaitzak	0,0430	GUZTIRA	43,1580	Iturria: Katastroa	
Landaketa mota	Ha kopurua																				
Pinudia	3,3940																				
Txarak (monte bajo)	2,4304																				
Hostozabalen basoak	30,4377																				
Sastraka	6,4758																				
Zituak, zerealak	0,2912																				
Belardiak	0,0859																				
Emangaitzak	0,0430																				
GUZTIRA	43,1580																				
Iturria: Katastroa																					
Interpretazioa																					
Udalaren ondareak dira, zenbait eraikin, lursail eta hilerria.																					

INFORMAZIO ITURRIAK

- Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatea
- E.A.E.ko Baso Inbentarioa (Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saila)
- Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria
- EUSTATEko serie estatistikoak
- Garraio zerbitzuetako enpresak
- Nekazaritza Ustialekuen Errolda
- Gipuzkoako Bidaiarien Garraio Publikoko Sarearen Azterketa (Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako Departamentua, Lur eta Garraioetako Zuzendaritza Nagusia)
- Gipuzkoako errepideen mapa eta zirkulazio intentsitatearen neurketak (Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentua)
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Garapeneko Departamentua, Basozaintza eta Natura Inguruneako Zerbitzua
- Gipuzkoako udal web. orria
- Gipuzkoako Ur Kontsortzioa
- Herri Batzarra
- Herritar elkarrizketatuak
- Herritarren ekarpen indibidualak
- Iberdrola S.A.
- Landa Izaerako Ondasun Higiezinaren gaineko zergen zentsua
- Lurralde Antolamenduaren Artezpideak eta Lurraldearen Arloko Planak

- Natura 2000 Sarea eta EAEko Garrantzizko Espazio Naturalen Katalogo Irekia
- Potentzialki Poluitutako Lurzoruen Inbentarioa (IHOBE)
- Tolosaldeako Landa Garapen Programa
- Tolosaldeako Mankomunitatea
- Tolosaldeako Turismoko Plan Estrategikoa
- Udala: Udal ordezkari eta teknikariak
- Zertifikatutako Enpresen Zerrenda (IHOBE)